# BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA

BAO

217. zk. 2025, azaroak 12. Asteazkena 1. orr.

I. ATALA

## BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

## Bizkaiko Foru Aldundia

### Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saila

**Ahaldun Nagusiaren 206/2025 FORU DEKRETUA, azaroaren 6koa, zeinaren bidez onesten baitira Administrazio Bereziko Eskalan sartzeko deialdiak.**

Jarraibide gisa harturik Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 34.1.g eta 39. artikuluetan Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 27.3.a) artikuluari dagokionez xedatzen dena, Ahaldun Nagusiari dagokio karrerako funtzionarioak hautatzeko deialdia eta oinarriak onestea.

Hori dela-eta, aipatutako arau horietan jasotako ahalmenak aplikatuz eta Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak proposatuta,

XEDATZEN DUT:

*Lehena:* Kontuan hartuta Bizkaiko Foru Aldundiaren erabaki hauek: 2025eko urriaren 23koa, 2025eko enplegu publikoaren bigarren eskaintza onestekoa, zeinean, besteak beste, arkitekturako plaza bat (1), Herritarren Eskubideen eta Lankidetza sustatzeko Erdi Mailako Teknikari plaza bat (1) jasotzen baita (2025eko urriaren 27ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 205 zenbakia); 2021eko uztailaren 13koa, 2021eko enplegu publikoaren eskaintza onestekoa, zeinean herritarren eskubideak eta lankidetza sustatzeko teknikari ertainen plaza bat (1) jasotzen baita (uztailaren 22ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 139 zenbakia); 2021eko abenduaren 21ekoa, 2021eko enplegu publikoaren bigarren eskaintza onestekoa, zeinean, besteak beste, ingurumeneko goi-mailako teknikarien plaza bat (1) jasotzen baita (abenduaren 30eko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 250 zenbakia); 2023ko abenduaren 28koa, 2023ko enplegu publikoaren bigarren eskaintza onestekoa, zeinean, besteak beste, ingurumeneko goi-mailako teknikarien hiru (3) plaza, albaitaritzako plaza bat (1), arkitekturako bederatzi (9) plaza, arkitektura teknikoko lau (4) plaza eta herritarren eskubideak eta lankidetza sustatzeko teknikari ertainen plaza bat (1) jasotzen baitira (abenduaren 29ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 248 zenbakia); 2024ko otsailaren 24koa, 2024ko enplegu publikoaren lehenengo eskaintza onestekoa, zeinean, besteak beste, herritarren eskubideak eta lankidetza sustatzeko teknikari ertainen plaza bat (1), arkitektura teknikoko bi (2) plaza eta arkitekturako plaza bat (1) jasotzen baitira (martxoaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 47 zenbakia); 2024ko abenduaren 19koa, 2024ko enplegu publikoaren bigarren eskaintza onestekoa, zeinean, besteak beste, ingurumeneko goi-mailako teknikarien bi (2) plaza, arkitekturako plaza bat (1) eta arkitektura teknikoko plaza bat (1) jasotzen baitira (abenduaren 23ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 246 zenbakia); 2025eko ekainaren 19koa, 2025eko enplegu publikoaren eskaintza onestekoa, zeinean, besteak beste, artxiboko teknikarien lau plaza (4) jasotzen baitira (ekainaren 23ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 118 zenbakia) Administrazio Bereziko Eskalan, lehiaketa-oposizio bidez, karrerako funtzionarioen plaza hauek betetzeko hautaproben deialdia onartzea:

— Ingurumeneko goi-mailako teknikaria, Administrazio Orokorreko Eskalan, Teknikarien Azpieskalan, goi-mailako teknikarien klasean, sei (6) plaza.

— Artxiboko teknikaria, Administrazio Orokorreko Eskalan, Teknikarien Azpieskalan, teknikari ertainen klasean, lau (4) plaza.

— Albaitaria, Administrazio Bereziko Eskalan, Teknikarien Azpieskalan, teknikari ertainen klasean, plaza bat (1).

— Arkitektura, Administrazio Bereziko Eskalan, Teknikarien Azpieskalan, teknikari ertainen klasean, hamabi (12) plaza.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

— Arkitektura teknikoa, Administrazio Bereziko Eskalan, Teknikarien Azpieskalan, teknikari ertainen klasean, zazpi (7) plaza.

— Herritarren eskubideak eta lankidetza sustatzeko teknikari ertainak, Administrazio Orokorreko Eskalan, Teknikarien Azpieskalan, teknikari ertainen klasean, lau (4) plaza.

*Bigarrena:* Deialdi horiek arautuko dituzten oinarri orokorrak eta bereziak onestea. Oinarri horiek, jasota gera daitezen, dekretu honi eranskin legez batu zaizkio.

*Hirugarrena:* Oinarriak argitara daitezela agintzea: oso-osorik Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (www.bizkaia.eus) eta laburpena, berriz, Estatuko Aldizkari Ofizialean.

*Laugarrena:* 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 61.2.a) artikuluaren arabera, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuak emango ditu deialdia tramitatzeko beharrezkoak diren ebazpenak, karrerako funtzionario-izendapena izan ezik, izendapena egitea Foru Aldundiari dagokio eta, aipaturiko foru-arauaren 17. artikuluaren 1. zenbakiko 33. zenbakian ezartzen denaren arabera.

Bilbon, 205eko azaroaren 6an.

Herri Administraziorako
eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua,
AGER IZAGIRRE LOROÑO

Ahaldun Nagusia,
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

**HAUTAKETA-PROZESUEN DEIALDIA LEHIAKETA-OPOSIZIO SISTEMAREN BIDEZ KARRERAKO FUNTZIONARIO LEGEZ SARTZEKO ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALETAN**

OINARRI OROKORRAK

**Lehenengoa.—*Xedea***

1. Oinarri hauen xedea da Administrazio Bereziko lanpostuak lehiaketa-oposizio bidez karrerako funtzionario gisa betetzeko onartutako hautaketa-prozesuen erregulazio komuna ezartzea, hargatik eragotzi gabe deialdi bakoitzak zehaztuko dituen oinarri espezifikoak, zeinek hautaketa-prozesu bakoitzaren berezitasunak jasoko baitituzte.

2. Plaza-kopurua, txandak eta sartzeko modalitateak.

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52.2 eta 78.8 artikuluak ezarritakoaren arabera, deitutako plazen kopurua gehitu ahal izango da, enplegu publikoaren eskaintzan agindutako plaza kopuruaren ehuneko hamar gehienez ere, baldin eta lanpostu hutsik sortzen bada eskaintza onartu ostetik oposizio-faseko lehenengo ariketaren datara bitartean. Gehikuntza hori Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren foru-agindu bidez onartuko da. Ez da eskabideak aurkezteko beste eperik irekiko.

Oinarri espezifikoetan zehaztuko dira deialdi bakoitzean parte hartzeko txandak (irekia eta, hala badagokio, barne-sustapenekoa) eta txanda bakoitzean sartzeko modalitateak (orokorra eta, hala badagokio, desgaitasuna duten pertsonentzakoa).

2.1. Barne-sustapeneko txanda:

Barne-sustapeneko txandaren bidez parte hartzen duten eta hautaketa-prozesua gainditzen duten parte-hartzaileek lehentasuna izango dute dagokion deialdian txanda irekitik datozen parte-hartzaileen aurrean.

Barne-sustapenerako gordetako plaza hutsak bete gabe gelditzen badira (inor aurkeztu ez delako, inork lortu ez duelako azterketak gainditzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa edo inork bete ez dituelako bigarren oinarriko betekizunak), orduan, plaza horiek txanda irekian eskainitakoei gehituko zaizkie.

Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako barne-sustapeneko txandako plazak bete gabe geratzen badira, barne-sustapeneko txanda arruntean eskaintzen diren plazei gehituko zaie.

2.2. Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako sarbidea.

Txanda irekiaren barruan desgaitasuna duten pertsonentzat gordeta dauden eta hutsik geratzen diren plazak txanda irekiko sarbide orokorreko modalitateari gehituko zaizkio. Hala ere, desgaitasuna duten pertsonentzat gordeta dauden plazen artean betetzen direnak ez badira deialdiko plaza guztien %3ra heltzen, bete ez diren plazak hurrengo lan-eskaintza publikoaren ehuneko zazpiko kupoari batuko zaizkio, %10eko gehieneko mugarekin.

3. Halaber, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunaren printzipioarekiko konpromisoa deklaratzen da, zeinak Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzupeko langileak sartzeko prozedura gidatzen baitu.

**Bigarrena.—*Interesdunek hautaketa-prozesuetan parte hartzeko bete behar dituzten baldintzak***

1. *Parte hartzeko betekizun orokorrak*

Hauek dira hautaketa-prozesuetan onartuak izateko betekizunak:

a) Espainiako edo Europar Batasuneko beste estatu kide bateko herritartasuna edukitzea.

Parte hartu ahal izango dute, halaber, Europar Batasuneko estatuetako herritartasuna dutenen ezkontideek, haien nazionalitatea edozein dela ere, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude, eta haien ondorengoek eta ezkontideare-

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

nek, zuzenbidez bananduta ez badaude, hogeita bat urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

Orobat parte hartu ahal izango dute Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuaren barruan dauden pertsonak, baldin eta tratatu horietan langileen zirkulazio-askatasuna ezartzekoa bada.

b) Eskuratu nahi den lanpostuari dagozkion zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

c) Hamasei (16) urte beteta izatea, eta nahitaezko erretirorako adinik oraindik ez izatea.

d) Diziplina-espediente bidez baztertua ez izatea ezein administrazio publikotako zerbitzutik edo ezein autonomia-erkidegotako konstituzio- edo estatutu-organismoetako zerbitzutik; era berean, ebazpen judizial bidez, erabateko desgaikuntza edo desgaikuntza berezia adierazita ez izatea enplegu edo kargu publikoak betetzeko, edo funtzionarioen kidegoetan edo eskaletan sartzeko. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, bere estatuan desgaikuntza-egoeran edo egoera baliokidean ez egotea, eta enplegu publikora iristea eragozten duen diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, baldintza berberetan.

e) Oinarri espezifikoetan eskatzen den titulazioa izatea, edo titulazioa jaso ahal izateko eskubideak ordainduta edukitzea.

Parte-hartzaileek atzerrian lortu badituzte, tituluen homologazioa egiaztatzen duten agiriak eduki beharko dituzte.

f) Indarrean dagoen araudiaren arabera, desgaitasuneko edo bateraezintasuneko legezko kausarik ez izatea, araudi horrek ematen dion aukera-eskubidea salbu utzita.

g) Ordainduta edukitzea langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa, parte hartzen den prozesu, kidego eta eskalari dagokiona. Tasa horren zenbatekoa oinarri espezifikoetan zehaztuko da.

h) Eskuratu nahi den plaza berean ez izatea Bizkaiko Foru Aldundiko karrerako funtzionario.

i) Oinarri berezietan ezarritako gainerako baldintzak betetzea.

2. *Barne-sustapeneko txandan parte hartzeko baldintzak*

Barne-sustapeneko txandan (horizontala edo bertikala) parte hartzen duten izangaiek, bigarren oinarri honen 2. apartatuan adierazten diren parte hartzeko baldintza orokorrak betetzeaz gainera, honako hauek ere bete beharko dituzte:

a) Bizkaiko Foru Aldundiko karrerako funtzionario izatea gaur egun dauden eskaletariko batean, lortu nahi duten plazaren azpiko lehen sailkapen-taldeko edo -azpitaldeko plaza batean, edo talde edo azpitalde bereko plaza batean, deialdiaren oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera.

b) Bi urte beteta izatea karrerako funtzionario legez jatorrizko plazan Bizkaiko Foru Aldundian.

c) Zerbitzu aktiboan edo zerbitzu berezietan egon behar dute jatorrizko kidegoan, eskalan, titulazio-eskakizunik gabeko taldekatze profesionalean edo lanbide-taldean, edo, bestela, eszedentzian, egoera hauetakoren batean: senideak zaintzeko eszedentzian, indarkeria terroristagatiko eszedentzian, genero-indarkeriagatiko eszedentzian edo, langile lan-kontratudunen kasuan, nahitaezko eszedentzian.

Barne-sustapeneko txandaren bidez hautaketa-prozesuan parte hartzea eskatu dutenek aurkeztutako eskabideak aztertuta ondorioztatzen bada ez dituztela betetzen horretarako eskatutako baldintzak, ofizioz onartuko dira txanda irekian, betiere txanda horretan onartuak izateko baldintzak betetzen badituzte.

Baldintzak izendapena egin arte bete behar dira; bestela, izangaia prozesutik kanpo geratuko da.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

3. *Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazak eskuratzeko baldintzak*

Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetara aurkezten direnek, bigarren oinarri honen 1. apartatuan aipatutako parte hartzeko baldintza orokorrak betetzeaz gainera, %33ko edo gehiagoko desgaitasuna izan beharko dute, foru-aldundietako organo eskudunak, IMSERSOk edo organismo baliokideren batek aitortua, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

Nolanahi ere, honako kasu hauetan joko da baldintza hori betetzen dela: ezintasun iraunkor osoagatik pentsioa aitortuta duten Gizarte Segurantzako pentsiodunen kasuan, eta zerbitzurako ezintasun iraunkorragatik edo desgaitasunagatik erretiro-pentsioa aitortuta duten klase pasiboetako pentsiodunen kasuan.

Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetan parte hartzea eskatu dutenek aurkeztutako eskabideak aztertuta ondorioztatzen bada ez dituztela horretarako baldintzak betetzen, ukitutako pertsonak ofizioz onartuko dira dagokion txandan, irekian edo barne-sustapenekoan —sarbide orokorra— betiere horretarako baldintzak betetzen badituzte.

Halaber, hautaketa-prozesuan zehar desgaitasuna duen pertsonak izaera hori galtzen badu desgaitasuna edo ezintasun iraunkorra berrikustearen ondorioz, dagokion txandan parte hartuko du, txanda irekian edo barne-sustapenekoan (sarbide orokorra), betiere horretarako baldintzak betetzen baditu.

4. *Lanpostuak betetzeko baldintza espezifikoak*

Betetzeko baldintzak ezarrita dituzten lanpostuak ezin izango dituzte bete, inola ere, baldintza horiek betetzen dituztela egiaztatu ez dutenek.

Deialdi bakoitzean, deialdiko lanpostuei esleitutako baldintza espezifikoak zerrendatuko dira.

5. *Baldintzak betetzeko data*

Plaza eskuratu nahi dutenek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean beteta izan beharko dituzte oinarri orokorretan zein berezietan ezarritako baldintzak, eta hautaketa-prozesuan zehar mantendu beharko dituzte, izendapen-egunera arte.

**Hirugarrena.—*Eskaera-orriak***

1. *Eskaera-orriak aurkezteko modua*

Hautaketa-prozesu batean parte hartu nahi dutenek nahitaez aurkeztu beharko dute eskabide-eredu ofizial normalizatua. I. eranskin gisa jaso da honako helbide elektroniko hauetan: www.ebizkaia.eus eta www.bizkaia.eus (enplegu publikoaren eskaintza atalean), eta tasa ordaindu beharko dute tasa bat ezartzen den Bizkaiko Foru Aldundian eta haren erakunde autonomoetan langile sartzeko hautaprobak egiteko interesa dutenei behar diren zerbitzuak emateko otsailaren 3ko 1/2021 Foru Arauaren arabera.

1.1. Eskabideak honela aurkez daitezke:

— Bitarteko elektronikoz, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez. (www.ebizkaia.eus). Egoitza elektronikoak onartutako identifikazio-bitarteko bat eta sinadura elektroniko bat behar dira.

— Aurrez aurre, Laguntza – Erregistroa eta Herritarrenganako Laguntza Bideratzeko Bulegoan (Diputazio kalea 7, 48008 Bilbo) eta Durango, Bermeo, Gernika, Balmaseda, Mungia eta Igorreko eskualde-bulegoetan (https://www.bizkaia.eus/eu/beste-sail-batzuk-bulegoak). Aldez aurretik hitzordua eskatu behar da www.bizkaia.eus/eu/aurretiko-hitzordua atalean, edo telefonoz (944 068 000).

— Halaber aurkeztu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren bulegoetan (aurrerantzean, urriaren 1eko 39/2015 Legea).

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

1.2. Eskatzaile bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du hautaketa-prozesu bakoitzeko. Eskaera-orri bat baino gehiago aurkeztuz gero, eskabideak aurkezteko epearen barruan aurkeztutako azken eskabidea soilik izango da baliozkoa eta hura bakarrik izapidetuko da.

2. *Eskaera-orriaren edukia*

Eskaera-orrian honako atal hauek bete beharko dira nahitaez:

1. Datu pertsonalak, prozesua behar bezala kudeatzeko.
2. Zer hautaketa-prozesutan parte hartu nahi den.
3. Parte hartu nahi den txanda (irekia edo barne-sustapena) eta sarbide-modalitatea (orokorra edo desgaitasuna duten pertsonentzat gordetakoa). Nahi den aukera berariaz jasota ez badago, txanda irekia eta sarbide orokorreko modalitatea aukeratzen direla ulertuko da.
4. Oinarri berezietan eskatutako titulazio akademikoa.
5. Oinarri espezifikoetan eskatzen den beste edozein betekizun.
6. Zein hizkuntza ofizialetan, euskaraz edo gaztelaniaz, egin nahi diren oposizio-faseko hautaprobak. Atal honetan ezer adierazi ezean, ulertuko da deialdian gehiengoak aukeratzen duen hizkuntzan egingo direla probak.
7. Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna, eta izangaiak zer hizkuntza-eskakizunen azterketa egin nahi duen.
8. Erantzukizunpeko adierazpena.

   Hala badagokio, eskatzaileek honako atal hauek bete beharko dituzte:

   1) Lanpostuen betekizun espezifikoak.

   2) %33ko desgaitasun-maila edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonen txandan parte hartzeko.

   3) Hautaprobak egiteko egokitzat jotzen diren denbora- eta baliabide-egokitzapenak eta -doikuntzak eskatzeko aukera.

   4) Merezimenduak.

   5) «050 hautaketa-prozesuetarako datuen ziurtagiria» edukitzea, Langileak Kudeatzeko Zerbitzuak emana. Ziurtagiri hori merezimenduak egiaztatzeko fasean egiaztatuko dute. Nolanahi ere, ziurtagiri horretan agertzen ez diren betekizunak eta merezimenduak eskabide-orrian alegatu beharko dira.

3. *Betekizunak eta merezimenduak alegatzea*

Hautagaiek parte hartzeko baldintza orokorrak eta espezifikoak, lanpostuen betekizun espezifikoak eta merezimenduak alegatu beharko dituzte eskaera-orrian.

Eskaera-orrian alegatu beharko dira parte hartzeko betekizun orokorrak bai eta barne-sustapeneko txandari eta desgaitasuna duten pertsonak sartzeko modalitateari dagozkien betekizun espezifikoak ere.

4. *Betekizunak eta merezimenduak egiaztatzea*

Ofizioz egiaztatu ahalko dira eta espedienteari gehitu kasuan-kasuan alegatzen diren betekizunak, kontsulta eginez Bizkaiko Foru Aldundiaren erregistroetan edo administrazio publikoen datu-bitartekaritzarako plataforman.

Halakoak posible diren kasu guztietan egingo dira kontsultok, baldin eta ez badago eskabidean jasota eskatzailea kontra dagoela. Kasu horretan, eskatzaileak aurkeztu beharko du kontsulta dadin nahi ez duen dokumentazioa, oinarri orokor hauetan edo espezifikoetan ezarritako epean.

Bizkaiko Foru Aldundiaren erregistroetan edo administrazio publikoen datu-bitartekaritzarako plataforman egindako kontsultek huts egiten badute erantzunean, hamar (10) egun baliodun banakako errekerimendua egingo da dokumentazio hori eskuratzeko, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 155.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

artikuluan martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuaren 61.2 artikuluari dagokionez xedatutakoa betetzeko. (203/2021 Errege Dekretua, Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamendua onartzen duena). Errekerimendu horri erantzuten ez bazaio, parte-hartzaileak hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira.

Desgaitasunaren aitorpena Bizkaiko Foru Aldundiak egin ez badu, eskaera-orriarekin batera aurkeztu beharko da.

Atzerriko titulazioen kasuan, tituluaren kopia soila ere aurkeztu beharko da, bai eta haren homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiriarena ere.

Merezimenduak zortzigarren oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera egiaztatuko dira.

Beraz, eskaera-orria aurkezteko unean, izangaiak ez du aurkeztu beharko parte hartzeko baldintzen egiaztagiririk —salbu eta, hala badagokio, desgaitasun-graduaren eta/edo atzerriko titulazioaren ziurtagiria— ez eta alegatutako merezimenduen egiaztagiririk ere.

5. *Tasa ordaintzea*

Tasaren ordainketa nominala eta indibidualizatua izango da hautaketa-prozesu bakoitzerako eta kuota 12 euro izango da.

Tasa autolikidazio bidez eskatuko da eta zerga-bilketan laguntzaile diren erakundeetako edozeinetan ordaindu ahal izango da, Bizkaiko Foru Aldundiaren 125/2019 abuztuaren 21eko Foru Dekretuaren bidez onartutako Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduan ezarritakoa beteta.

Tasa ordaintzetik salbuetsita daude:

a) %33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak; Bizkaiko Foru Aldundiak aitortu ez badu, egoera hori egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute eskaera-orriarekin batera.

b) Familia ugariak, Familia Ugaria Babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen 12.1.c) artikuluan ezarritakoaren arabera. Horretarako, eskabidearekin batera, familia ugariko kide direla egiaztatzeko agiria aurkeztu beharko dute. Ez da familia ugariaren titulua aurkeztu beharko titulu hori Euskal Autonomia Erkidegoan lortu bada; horren gaineko egiaztapena dauden datu-bitartekaritzarako sistemen bidez egingo da.

c) Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonak edo, hala badagokio, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren onuradunak.

d) Genero-indarkeriaren biktimak, arloan indarrean dagoen araudiaren arabera.

e) Guraso bakarreko familiak. Kasu horretan, salbuespena egiaztatzeko, hitzez hitzeko jaiotza-ziurtagiri eguneratua aurkeztu beharko da.

Langileak hautatzeko eskumena duen Bizkaiko Foru Aldundiko organoak beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu administrazioak interesdunei buruz dituen datuen gainean. Horretarako, Bizkaia Nodoaren elkarreragingarritasun-zerbitzuak erabiliko ditu, salbu eta egiaztapena datu-bitartekaritzako sistemen bidez egitea ezinezkoa bada edo interesdunak horren aurka dagoela espresuki adierazten badu; halakoetan, eskatutako salbuespena justifikatzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira eskaera-orriarekin batera.

Langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasak eskabideak aurkezteko epearen barruan ez ordaintzeak edo osorik ez ordaintzeak prozesutik kanpo uztea ekarriko du.

Tasa ez ordaintzeari edo osorik ez ordaintzeari dagokion akatsa kasu honetan baino ezingo da zuzendu: eskatzaileak ordaintzetik salbuetsita dagoela alegatu badu, baina okertu egin bada salbuespen horretarako baldintzak betetzeari dagokionez. Zuzenketa hori egiteko hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio pertsonari.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

Langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasa ordaintzeak ezin izango du inola ere ordeztu eskabidea garaiz eta behar bezala aurkezteko izapidea.

6. *Eskaera-orriak aurkezteko epea*

Eskaera-orriak aurkezteko, hogei (20) egun balioduneko epea egongo da, deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

7. *Eskabide-orrietako akatsak*

Eskaera-orriak garaiz eta forma egokian ez aurkezteak izangaia baztertuta geratzea ekarriko du.

**Laugarrena.—*Izangaien onarpena***

1. Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere bi (2) hilabeteko epean, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak foru-agindu bidez onetsiko du onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda, lehenengo ariketaren datarekin batera. Ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren www.bizkaia.eus web-orrian argitaratuko da. Epe hori behin bakarrik luzatu ahal izango da, justifikatutako arrazoiengatik eta ebazpen arrazoitua eman ondoren.

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda horietan, izangaien izena eta bi abizen eta nortasun agiri nazionalaren zenbakia agertuko dira, aintzat harturik zer ezartzen duen zazpigarren xedapen gehigarrian Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak. Halaber, izangaiak zer modalitatetan eta txandatan onartuak izan diren adieraziko da, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoia ere bai.

Datu pertsonalak edo identifikazio-datuak ematean egindako akatsak ofizioz edo interesdunak eskatuta zuzenduko dira, hautaketa-prozesuaren edozein unetan.

2. Baztertuta ageri direnek eta zerrenda batean ere ageri ez direnek hamar (10) egun balioduneko epea izango dute zerrendak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta www.bizkaia.eus web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, baztertzea eragin duten akatsak edo omisioak zuzentzeko —betiere oker-omisiook zuzentzeko modukoak badira— edo zerrenden kontrako erreklamazioak aurkezteko.

Behin-behineko zerrendak automatikoki behin betikotzat joko dira baldin eta erreklamaziorik egiten ez bada edo eskatutako zuzenketak aurkezten ez badira. Halakorik aurkeztuko balitz, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onesten dituen beste foru-agindu batean baietsi edo ezetsiko dira, eta oinarri honen lehen paragrafoan adierazitako bitartekoetan argitaratuko da.

Behin betiko zerrendetatik kanpo geratu diren pertsonek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko foru-diputatuari, hilabeteko (1) epean, zerrendak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean : www.bizkaia.eus web-orrian argitaratzen direnetik aurrera. Errekurtsoa aurkeztu dutenek probak egin ahal izango dituzte, kautelaz; horretarako, baztertzearen aurkako errekurtsoa aurkeztu dutela egiaztatu beharko dute, ordurako errekurtsoa ebatzi ez bada.

3. Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei hautaketa-prozesuko betekizunak betetzen dituztela aitortzen zaienik.

Hautaketa-prozesuaren edozein unetan, epaimahai kalifikatzaileak jakinez gero izangairen batek deialdian parte hartzeko baldintzak ez dituela betetzen, proposamena egin beharko dio organo eskudunari izangai hori bazter dezan, betiere interesdunari entzunaldia eman ondoren, eta parte hartzeko eskabidean pertsona horrek zehaztasunik gabe eman dituen edo faltsutu dituen datuen berri eman beharko dio.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

**Bosgarrena.—*Epaimahai kalifikatzailea***

1. *Izendapena*

Epaimahai kalifikatzaileko kideak Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako diputatuaren foru-agindu bidez izendatuko dira. Izendapenak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta web-orrian(www.bizkaia.eus) argitaratuko dira, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendarekin batera.

2. *Osaera*

Hautaprobak garatu eta kalifikatzeko ardura duten epaimahaiek kide titularrak eta ordezkoak izango dituzte, era honetara:

— Epaimahaiburua:

- Bizkaiko Foru Aldundiko karrerako funtzionario bat, titular gisa, eta beste bat, ordezko gisa.

— Epaimahaikideak:

- Bizkaiko Foru Aldundiko karrerako hiru funtzionario, titular gisa, eta beste horrenbeste, ordezko gisa.
- Karrerako funtzionario bat, titular gisa, eta beste bat, ordezko gisa, biak Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak izendatuta.
- Euskararen jakite-maila baloratzeko, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren ordezkari bat izendatuko da, titular gisa, eta beste bat ordezko gisa.

— Idazkaria:

- Bizkaiko Foru Aldundiko karrerako funtzionario bat, titular gisa, eta beste bat, ordezko gisa.

Epaimahaiaren osaeran bermatu beharrekoak izango dira, batetik, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81.6 artikuluan ezarritako berezitasun-printzipioa, eta, bestetik, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen 2023ko martxoaren 16ko Legegintzako Dekretuaren 21.3 artikuluan jasotako ordezkaritza orekatuaren printzipioa.

Epaimahai kalifikatzaileak bere lanetan aholkulari espezialistak sartzea xedatu ahal izango du hautaketa-prozesuko proba guztietarako edo batzuetarako. Aholkulari espezialistek hitza izango dute, baina botorik ez, eta haien jarduna beren espezialitate teknikoetan epaimahai kalifikatzaileari laguntzera mugatuko da. Aholkulari horien jarduna ere objektibotasun-, inpartzialtasun- eta konfidentzialtasun-printzipioen mende egongo da.

3. *Abstentzioa eta errekusazioa*

Epaimahaiko kideak jardutetik abstenitu beharko dira Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan ezarritako egoeretan, eta Administrazio Publikorako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuari jakinarazi beharko diote. Orobat abstenitu beharko dira deialdia argitaratu aurreko bost urteetan hautaprobetan parte hartuko duten izangaiak prestatzen jardun badute.

Halaber, aurreko kasuetako bat gertatzen denean, interesdunek noiznahi errekusatu ahal izango dituzte epaimahaikideak, aipatutako legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4. *Jarduteko arauak*

Epaimahaiak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15.etik 18. era bitarteko artikuluetan ezarritako arauak bete beharko ditu bere jardunean. Nolanahi ere, epaimahaiburuaren aginduz bilduko da, idazkariak deialdia egin ondoren, hautaprobak hasi baino nahikoa denbora lehenago, eta, balioz eratzeko, beharrezkoa izango da presidentea eta idazkaria, edo, hala badagokio, haien ordezkoak, eta, gutxienez, kideen erdiak bertaratzea.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

Epaimahaikide guztiek hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute, idazkariak izan ezik; hark hitz egiteko eskubidea izango du, baina ez botoa ematekoa.

Epaimahaiak gehiengoz hartuko ditu erabakiak. Berdinketak epaimahaiburuaren kalitateko botoarekin ebatziko dira.

Epaimahaikideak ez badaude edo gaixorik badaude, eta, oro har, justifikatutako arrazoiren bat badago, haien ordezkoek ordezkatuko dituzte.

Epaimahaiburuaren edo haren ordezkoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez badira, gaixorik badaude edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, antzinatasun handiena duen kideak eta adinez zaharrena den kideak ordeztuko dituzte, hurrenkera horretan.

Idazkariaren eta haren ordezkoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez badira, gaixorik badaude edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, epaimahaiak hautatutako kideek ordeztuko dituzte.

Idazkaria kide anitzeko organoko kide batek ordezten badu, kide anitzeko organoaren eskubide guztiak gordeko ditu kide horrek.

Epaimahaiak autonomia funtzional osoz jardungo du, eta prozeduraren gardentasunaz eta objektibotasunaz, proben edukiaz eta konfidentzialtasunaz eta deialdiaren oinarriak zorrotz betetzeaz arduratuko da.

Halaber, oinarri hauek eta oinarri espezifikoak eta «Epaimahaien funtzionamenduari buruzko eskuliburua» aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak argituko ditu. Gainera, deialdia behar bezala garatzeko behar diren erabakiak hartuko ditu, eta deialdian aurreikusi gabeko kasuetan hartu beharreko irizpideak ezarriko ditu.

Epaimahaiak nortasuna egiazta dezatela eskatu ahal izango die izangaiei. hautaketa-prozesuan zehar, edonoiz. Halaber, prozesuan zehar jatorrizko dokumentazioa eskatu ahal izango da, bai eta, zalantzarik izanez gero, merezimenduak behar bezala baloratzeko edo baldintzak betetzen direla egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen den edozein dokumentazio osagarri ere.

Epaimahaiak hautaketa-prozesutik kanpo utzi ahal izango du iruzurrez jokatzen duen edozein izangai, jokabide horrek edozein proba normal garatzea eragozten badu edo, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera, lehia desleiala sortzen badu. Epaimahaiburuak berehala emango dio jarduketon berri Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari, eta gertatukoa jasoko du dagokion bilera-aktan.

Halaber, hautaketa-prozesuko edozein proba egiten den bitartean, ezin izango da eduki edo erabili gailu edo bitarteko teknologikorik, lehenago aipatutako printzipioak bermatzeko, eta kasuan kasu argitaratzen den jarraibide-orria izango da atal honetan ezarritakoa zehazteko eta garatzeko epaimahaiak erabiliko duen tresna.

Izangai batek agindu horiek betetzen ez baditu, probatik eta hautaketa-prozesutik kanporatua izango da, berehala, eta, beraz, ez da sartuko prozesu horretatik sortzen den lan-poltsan.

Epaimahaiak, hautaketa-prozesuan zehar, nork bere espedientearen berri izateko eskubidea bermatuko die izangaiei.

Epaimahaiak behin-behineko kalifikazioak onartzeko hartzen dituen erabakien aurka, bost (5) egun balioduneko epea izango da, erabaki horiek Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, erreklamazioak aurkezteko, hala badagokio.

Epaimahai kalifikatzaileak erreklamazioak ebatzi ondoren, behin betiko kalifikazioak onetsiko dira eta Bizkaiko Foru Aldundiaren www.bizkaia.eus web-orrian argitaratuko. Epaimahaiaren ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuaren aurrean, hilabeteko (1) epean, ebazpena Bizkaiko Foru Aldundiaren www.bizkaia.eus web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

Jarraibide harturik urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan xedatutakoa, hautaketa-prozesutik eratorritako administrazio-egintzak Bizkaiko Foru Aldundiaren www.bizkaia.eus web-orrian argitaratu beharko dira; argitalpen horiek jakinarazpenaren ordezko izango dira eta haren ondorio berak izango dituzte.

Komunikazioetarako eta gainerako gorabeheretarako, Foru Jauregian izango du epaimahaiak egoitza (Kale Nagusia 25, 48009 Bilbo).

5. *Kalte-ordainak.*

Epaimahaikideek zerbitzuagatik dagozkien kalte-ordainak jasoko dituzte, bertaratzeak barne, horri buruz indarrean dagoen araudiaren arabera.

Epaimahaiari aholkularitza ematen dioten pertsonek ere dagozkien kalte-ordainak jasoko dituzte.

**Seigarrena.—*Hautaketa-prozesua***

1. Hautaketa-prozesua oposizio-lehiaketa izango da, txanda guztietan, deialdiaren oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera.

2. Deialdiaren oinarri espezifikoetan adierazitako ariketak edo ariketek osatuko dute oposizio-fasea. Oposizio-fasea gaindituko dute bakarrik hura osatzen duten ariketak oinarri espezifikoetan ezarritako moduan gainditzen dituztenek.

Hautaketa-prozesuetan izangai direnek nahitaezkoa izango dute deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzean indarrean zegoen araudia jakitea.

3. Lehiaketa-fasea, berriz, ez da baztertzailea izango, eta ezingo da kontuan hartu oposizio-faseko ariketak gainditzeko. Fase honetan oposizio-fasea gainditu duten hautagaiek aurkeztu eta egiaztatu dituzten merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, hautagai bakoitzari puntuazio bat emango zaio deialdian azaltzen diren baremo zehatzen arabera.

Eskabidean alegatu eta horretarako emandako epean behar bezala justifikatutako merezimenduak bakarrik baloratuko dira.

Betiere, alegatzen diren merezimenduen zenbaketarako erreferentziako azken eguna deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den eguna izango da.

4. Euskara-azterketa, bestalde, nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazetan, eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea, berriz, gainerako plazetan. Euskara-azterketa nahitaezko eta baztertzailea gainditzen edo egiten ez duten izangaiek derrigorrezko eskakizun hori ezarrita duen lanposturik lotuta ez duten gainerako plazetarako hautaketa-prozesuan jarraituko dute; ariketa horretan lortutako kalifikazioa, hala badagokio, merezimendu gisa zenbatuko da.

Izangaiek deitu diren plazei atxikitako hizkuntz-eskakizunen azterketarik baino ezin izango dute egin. Euskara-azterketa egin ahal izango dute soilik eskabidean zehazki eskatu zuten izangaiek

Bizkaiko Foru Aldundian. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Azken kasu horretan hala izango da, baldin eta parte-hartzaileak Bizkaiko Foru Aldundiak egin behar diruen egiaztapenen aurka ez daude.

Hala ere, aurkeztu beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta badauden baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Izangaiek hizkuntza-eskakizuna apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean egiaztatu nahi badute, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte (dekretu horren bidez, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzen eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesten dira).

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

Nolanahi ere, interesdunak aukera du Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan bere datuak kontsultatzeko, honako esteka honetan: http://www.euskadi.eus/registro-unificado-de-titulos-y-certificados-de-euskera/web01-a2etzeb/es/

Deialdiko lehen euskara-azterketa egiteko ezarritako dataren aurreko egunera arte egiaztatu ahal izango da hizkuntza-eskakizuna. Eta eskabidean hala eskatu dutenak bakarrik aurkeztu ahal izango dira azterketa horretara.

**Zazpigarrena.—*Oposizio-fasearen hasiera eta garapena***

1. Hautaketa-prozesuaren lehen urratsa oposizio-fasea izango da. Onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak onetsiko dituen Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren foru-aginduan adieraziko da zein egunetan, ordutan eta lekutan izango den oposizioko lehen ariketa.

2. Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenden foru-agindua argitaratzen denetik lehen ariketa egin arte, bi (2) hilabeteko epea utzi behar da, gutxienez.

3. Parte-hartzaileen jardute-ordena, hala badagokio, Herri Administraziorako Estatu Idazkaritzak martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoarekin bat egingo duen zozketaren bidez ezarriko da —dekretu horren bidez, Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuko langileriaren sarrerari buruzko eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostu-hornikuntzari eta lanbide-sustapenari buruzko Erregelamendu Orokorra onartzen da—.

Deialdian ez badago inor zozketan ateratako letraz hasten den abizenik duenik, alfabetoko hurrengo letren bidez ezarriko da hurrenkera.

4. Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie izangaiei, eta bertaratzen ez direnak baztertuta geratuko dira, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Probak egiten diren egunerako ebatzi gabe badago interesdunek aurkeztutako errekurtsoa, kautelaz egin ahal izango dituzte proba horiek. Kautelaz egindako ariketek ez dute baliorik izango errekurtsoa ezetsiz gero.

5. Haurdunaldian edo edoskitzaroan daudenek egokitzapen materialak eskatu ahal izango dituzte, beren egoeraren berri emanez Langileen Aukeraketarako eta Trebakuntzarako Zerbitzuari, probak egin baino bost egun baliodun lehenago gutxienez.

Haurdunaldiaren edo erditzearen kasuan (behar bezala egiaztatu beharko da kasua) parte-hartzaile batek hautaketa-prozesua ezin badu amaitu edo prozesuko ariketaren bat ezin badu egin, beharrezkoa izango da izangai horrek prozesua amaitzea eta geroratutako faseak gainditzea. Baina faseok ezin dira gehiegi atzeratu, ez, behintzat, gainerako izangaiek zentzuzko garai batean ebazpena jasotzeko duten eskubidea kaltetzeko moduan (epaimahaiak ebaluatuko du noiz den zentzuko garaia). Edonola ere, hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda argitaratu aurretik egin beharko dira fase horiek.

Goian ezarritakoaren salbuespen gisa, eta hautaprobetan aukera- eta tratu-berdintasuna bermatzeko, epaimahai kalifikatzaileak egokitu egin ditzake probak egiteko egunak eta/edo lekuak haurdunaldian dauden, erditzen dauden, edo erditu aurreko edo ondorengo egoeretan dauden emakumeen kasuan, betiere inguruabar horiek proba edo ariketa egin baino lehen jakinarazten bazaizkio epaimahai kalifikatzaileari eta medikuaren ziurtagiriaren bidez egiaztatzen bada egoera hori. Edonola ere, hautatutako pertsonen zerrenda argitaratu aurretik egin beharko dira egokitutako proba horiek.

6. Ariketa bat amaitzen denetik hurrengoa hasi arte hirurogeita hamabi (72) ordu igaro beharko dira, gutxienez, eta epe hori, gehienez, berrogeita bost (45) egun baliodunekoa izango da.

7. Behin hautaprobak hasita, ez da nahitaezkoa izango hurrengo iragarkiak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orrian (www.bizkaia.eus) argitaratuko dira iragarkiak, probak hasi baino hamabi (12) ordu lehenago gutxienez, baldin eta ariketa bera bada, edo hogeita lau (24) ordu lehenago, beste ariketa bat bada.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

8. Epaimahai kalifikatzaileek ariketak egiteko denbora eta baliabideak egokituko dizkiete desgaitasuna duten izangaiei, bermatzeko gainerako parte-hartzaileen aukera berak dituztela, betiere egokitzapenon bidez ariketen edukiari garrantzirik kentzen ez bazaio edota ariketetan eska daitekeen gaitasun-maila jaisten ez bada.

9. Oposizio-faseko ariketa bakoitzaren zuzenketa amaitutakoan, epaimahaiak Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orrian (www.bizkaia.eus) argitaratuko ditu gainditu dutenen zerrendak, bakoitzaren kalifikazioak eta guzti. Zerrenda horiek deialdiaren oinarri espezifikoetan zehaztutako txandetako bakoitza bereiziz osatuko dira.

a) Barne-sustapeneko txandan gainditu dutenen zerrendak sarbide orokorreko modalitateko eta desgaitasuna dutenen modalitateko pertsonak jasoko ditu, puntuazio-ordenaren arabera.
b) Txanda irekian gainditu dutenen zerrendak sarbide orokorreko modalitateko eta desgaitasuna dutenen modalitateko pertsonak jasoko ditu, puntuazio-ordenaren arabera.

Zerrenda horiek, euskara-azterketa egin ondoren, bereizita argitaratuko dira, plazek ezarrita duten hizkuntza-eskakizunaren arabera eta plaza bakoitzari ezarritako eskakizuna nahitaezkoa den edo ez kontuan hartuta.

10. Azken ariketa gainditu duten parte-hartzaileen zerrenda argitaratzen denean amaituko da oposizio-fasea.

**Zortzigarrena.—*Lehiaketa-fasearen hasiera eta garapena***

Lehiaketa-fasea behin oposizio-fasea amaitutakoan hasiko da.

Oposizio-fasea gainditzen duten parte-hartzaileek hamar (10) egun balioduneko epea izango dute, dagokion iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskaera-orrian aipatu zituzten merezimenduen egiaztagiriak aurkezteko.

Dokumentazioa, ahal dela, egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuko da, baina Bizkaiko Foru Aldundiaren erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan ere aurkeztu ahal izango da (Bilbo, Balmaseda, Bermeo, Durango, Gernika-Lumo, Igorre, Markina-Xemein eta Mungia) eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16,4. artikuluan ezarritako lekuetan ere aurkeztu ahal izango da.

Eskaera-orrian alegatutako eta horretarako ezarritako epearen barruan behar bezala egiaztatuko merezimenduak bakarrik baloratuko dira.

Eskabidean «050 hautaketa-prozesuetarako datuen ziurtagiria» dutela alegatu zuten pertsonek ziurtagiri hori aurkeztu beharko dute fase honetan.

Bizkaiko Foru Aldunditik kanpoko beste administrazioetan egindako zerbitzuak egiaztatzen dituzten agiriek honako informazio hau jaso beharko dute:

— Sailkapen-taldea eta -azpitaldea, eta Administrazio Orokorreko edo Bereziko eskalakoa izatea..
— Kategoriaren izena (plaza).
— Lanpostuaren funtzioak.
— Gizarte Segurantzako kotizazio-taldea.

Betekizun eta baldintza horiek beteta, oposizio-fasea gainditu ez duten baina errekurtsoa jarri duten pertsonek ere aurkeztu ahal izango dute dokumentazioa, kautelaz, errekurtso horri buruzko ebazpenak hasierako fase hori gainditzea ekar badezake.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluarekin bat, alegatutako merezimenduak egiaztatzeko agirietan akatsik egonez gero, iragarkia jarriko da www.bizkaia.eus (Lan Publikoaren Eskaintza) web-orrian, interesdunari eskatzeko zuzen dezala akatsa hamar (10) egun balioduneko epean. Halaber, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, merezimenduak ez direla baloratuko lehiaketa-fasean.

Era berean, oposizio-fasea gainditu ez dutenek ere aurkeztu beharko dituzte kontuan hartzekoak diren merezimenduen egiaztagiriak, horrela deialditik ateratzen den lan-poltsaren aurrentasun-hurrenkera zehazteko.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

**Bederatzigarrena.—*Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa***

1. *Oposizio-aldia*

Deialdiaren oinarri berezietan adierazi den eran kalifikatuko dira oposizio-faseko ariketak.

2. *Lehiaketa-fasea*

Deialdi bakoitzaren oinarri berezietan ezarritako baremoaren arabera emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketa-fasearen balorazioa.

3. *Azken kalifikazioa*

3,1. Hautaketa-prozesuaren azken kalifikazioa lehiaketa- eta oposizio-faseetan eta —hala badagokio— praktikaldian edo trebakuntzako hautaketa-ikastaroan lortutako puntuazioen batura izango da.

3.2. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1 a) artikuluan xedatutakoa aplikatzeko, emakumeei emango zaie lehentasuna emakumeak %40 baino gutxiago diren administrazioko kidego, eskala eta kategorietan. Salbuespena izango da beste izangaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duen arrazoiren bat izatea (sexu-diskriminaziorik eragiten ez duena), hala nola lana lortzeko zailtasunak dituen kolektibo bateko kidea izatea.

3.3. Horrez gainera, eta aurreko zenbakian xedatutakoa eragotzi gabe, berdinketarik badago, hauek izango dute lehentasuna hurrenkera ezartzerakoan: lehenik, oposizio-aldian punturik gehien lortu duenak; bigarrenean, deitutako kategorian zerbitzu-denbora gehien eman duen pertsonarena; hirugarrenean, Bizkaiko Foru Aldundian zerbitzu-denbora luzeena eman duen pertsonarena; laugarrenean, Euskal Administrazio Publikoan zerbitzu-denbora luzeena eman duen pertsonarena; bostgarrenean, beste administrazio publiko batzuetan zerbitzu-denbora luzeena eman duen pertsonarena, eta, azkenik, adinez zaharrena den pertsonarena.

**Hamargarrena.—*Destinoen aukeraketa***

1. Prozesuaren azken kalifikazioak irmo direnean, destinoak hautatuko dira, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 71.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horretarako, Langileen Aukeraketarako eta Trebakuntzarako Zerbitzuak iragarki bat argitaratuko du Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orrian (www.bizkaia.eus), eta bost egun balioduneko epea ezarriko du, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2. Destinoak aukeratzeko irizpide orokorrak:

2.1. Izangaiei dei egitea:

Destinoa aukeratzeko dei egiten zaien pertsonek beren espediente elektronikoan gaitutako formularioa bete beharko dute, destinoen lehentasun-ordena adierazita. Deklarazio horrek ondorio loteslea izango du, eta ezingo da aldatu bost (5) eguneko epea igaro ondoren. Epe horretan pertsona batek formulario bat baino gehiago bidaltzen badu, bidalitako azken formularioak baino ez du baliorik izango.

Destino bat aukeratzera deitzeak ez du bermatzen destino hori esleituko denik. Destino bakoitza esleitzeko, destinoetarako eskatzen diren betekizun guztiak betetzeaz gainera, honako hauek ere kontuan hartuko dira: behin betiko kalifikazioen zerrendan izangaiak duen lehentasun-hurrenkera, destino bakoitzerako eskatzen den hizkuntza-eskakizunaren arabera, eta destino horri izangai bakoitzak esleitutako lehentasun-zenbakia.

2.2. Eskainitako lanpostuetarako eskatzen diren baldintzak betetzea.

Lanpostu jakin bat esleitu ahal izateko, hautaketa-prozesua gainditu duten parte-hartzaileek lanpostu horretarako eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

Laneko Osasuneko Zerbitzuak dei egingo die destinoaren esleipendun diren pertsona desgaituei osasun-azterketa egiteko, lanpostuak eskatzen duen lan-gaitasuna egiaztatzeko. Era berean, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Araudiaren arabera Lanerako Gaitasunaren balorazioa behar duten lanpostuen esleipendunak ere deituko ditu Laneko Osasuneko Zerbitzuak.

Pertsona horiei dagozkien probak eta azterketak egingo zaizkie. Uko eginez gero, prozesutik kanpo geratuko dira.

Pertsona horiek gai ez badira, dagokien eta gai diren hurrengo destinoa esleituko zaie.

2.3. Izangaiaren lehentasun-hurrenkera hizkuntza-eskakizun jakin bateko lanpostuen kasuan.

Lehentasun-hurrenkera hautaketa-prozesua gainditu duten parte-hartzaileen puntuazio-hurrenkera da. Eskainitako plazei lotutako hizkuntza-eskakizun bakoitzeko lehentasun-hurrenkera bat ezarriko da.

Destino bakoitza esleitzeko, kontuan hartuko da destino horrekin lotutako hizkuntza-eskakizunari dagokion lehentasun-hurrenkera.

2.4. Izangai bakoitzak adierazitako destinoen lehentasun-hurrenkera.

Destinoak aukeratzeko formularioaren bidez izangaiek adieraziko dute zer lehentasun dituzten eskainitako lanpostuen artean; izan ere, formulario horretan, lehentasun-zenbaki bat emango diote destino bakoitzari.

2.5. Barne-sustapeneko txandaren berezitasunak (sarbide orokorra eta desgaitasuna dutenena).

Barne-sustapeneko txandan sartzen diren pertsonek txanda horretan eskainitakoekin bat datorren hizkuntza-eskakizuna duten destinoen artean bakarrik aukeratu ahal izango dute.

Destinoen aukeraketan lehentasuna izango dute, txanda irekitik sartzen diren pertsonen aldean, bi txandetan deitutako plazen hizkuntza-eskakizunarekin bat datozen hizkuntza-eskakizuneko destinoei dagokienez.

Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetarako barne-sustapeneko txandari dagozkion esleipenak amaitutzat emango dira txanda eta sarbide-modalitate horietarako eskainitako plaza guztiak betetzen diren unean.

Txanda horretan desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetara aurkezten direnek erreserba-eskubidea izango dute.

Baldintzak betetzen dituen izangairik ez dagoelako barne-sustapeneko txandako desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako destinoak bete gabe geratzen badira, sarbide orokorreko barne-sustapeneko txandan eskainitako destinoen edo plazen kopuruari gehituko zaizkie.

Baldintzak betetzen dituen izangairik ez dagoelako barne-sustapeneko txandan bete gabe geratzen diren destinoak, sarbide orokorreko txanda irekian eskainitako destinoen kopuruari gehituko zaizkie.

Barne-sustapeneko txandan parte hartu duten baina txanda horri dagozkion esleipenetan lanposturik lortu ez duten pertsonek ez dute izango txanda irekiari dagozkion esleipenetan parte hartzeko aukerarik izango.

2.6. Txanda irekiaren berezitasunak (sarbide orokorra eta desgaitasuna dutenena).

Txanda irekian parte hartzen duten pertsonek txanda horretan eskainitakoekin bat datorren hizkuntza-eskakizuna duten destinoen artean aukeratu ahal izango dute. Halaber, aurretik bete gabe geratu diren barne-sustapeneko txandako destinoak ere eskuratu ahal izango dituzte.

Txanda horretan desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetara aurkezten direnek erreserba-eskubidea izango dute.

Txanda irekian desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazak hutsik geratzen badira baldintzak betetzen dituen hautagairik ez dagoelako, gehitu

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

egingo zaizkio sarbide orokorreko txanda irekian eskainitako plazen kopuruari, betiere desgaitasuna duten pertsonentzako txanda irekian sartu diren pertsonei esleitutako plazen kopurua deitutako plaza guztien %3ko tasara iristen bada. Bestela, txanda irekian bete gabe geratu diren eta desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazak hurrengo enplegu publikoaren eskaintzarako gordeko dira.

2.7. Hala eta guztiz ere, desgaitasuna duten pertsonentzako plazetara aurkezten diren pertsonek destinoa aukeratzeko lehentasun-hurrenkera aldatzeko eskatu ahal izango diote Bizkaiko Foru Aldundiari, mendekotasun pertsonala, mugitzeko zailtasunak edo antzeko beste arrazoi batzuk direla eta (egoera horiek behar bezala egiaztatu beharko dira). Lanpostuak adjudikatzeko eskumena duen organoak aldaketa hori egitea erabakiko du baldin eta behar bezala justifikatuta badago, eta aldaketak ahalik eta eragin txikiena sortu behar du lehentasun-hurrenkeran, desgaitasuna duen pertsonak lanpostua eskuratzeko bestekoa soilik.

3. Langileen Aukeraketarako eta Trebakuntzarako Zerbitzuak destinoak esleitzeko proposamena bidaliko dio epaimahai kalifikatzaileari.

**Hamaikagarrena.—*Hautatutako pertsonen zerrenda eta pertsona horiek karrerako funtzionario izendatzeko proposamena***

Destinoak esleitzeko proposamena jasota, epaimahaiak pertsona hautatuen zerrenda argitaratuko du, eta karrerako funtzionario izendatzeko proposamena igorriko die goragokoei.

Ezin izango du hautatutzat jo deitutako plazak baino parte-hartzaile gehiago.

Era berean, epaimahaiak izangaien zerrenda osagarria egingo du, eta hor sartuko ditu proposatutako pertsonen atzetik doazen eta hautaketa prozesua gainditu duten izangaiak; horrela, baldintza guztiak betetzen badituzte, karrerako funtzionario izendatu ahal izango dituzte kasu hauetan: izendatu edo jabetzan hartu aurretik, hautatutako pertsonek uko egiten badiote; edo lanpostuaz jabetzeko unean eszedentzia eskatzen badute lanpostua gordetzeko eskubiderik gabe, edo lanpostuaz benetan jabetzen ez badira.

Barne-sustapeneko txandari eta txanda irekiari dagozkien zerrendek osatuko dute zerrenda osagarri hori, txanda bakoitzean eskainitako plazek dauzkaten hizkuntza-eskakizunak kontuan hartuta.

**Hamabigarrena.—*Agiriak aurkeztea***

Hautatutako pertsonen zerrenda argitaratu ondoren, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak eskatzen dizkien dokumentuak aurkeztu beharko dituzte pertsona horiek Bizkaiko Foru Aldundiko Langileak Kudeatzeko Zerbitzuan (Kale Nagusia 25, Bilbo 48009).

Nolanahi ere, hautatutako pertsonek deitutako lanpostuetako eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala dutela egiaztatzen duen mediku-ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Aurkeztu beharreko dokumentuek jatorrizkoak izan behar dute, edo lokalizatzailea edo sinadura elektronikoa duten dokumentuak, zeinak ezin baitira aldatu.

Aurkeztutako dokumentazioa Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean aurkeztu beharko da. Dokumenturen bat beste hizkuntza batean idatzita badago, zinpeko itzulpena erantsi beharko zaio dokumentu horri.

Hogei (20) egun baliodunekoepea egongo da agiriak aurkezteko, hautatutakoen zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Ezinbesteko kasuak alde batera utzita, aipatutako epearen barruan agiriak aurkezten ez dituztenak edo aurkeztu dituzten agirien arabera bigarren oinarrian adierazitako baldintzaren bat betetzen ez dutenak ezin izango dira izendatuak izan, eta baliogabetuta geratuko dira haien jarduketa guztiak, hargatik eragotzi gabe eskabidea faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizuna.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

Izangairen batek ezin baditu aurkeztu errekeritutako agiriak, eta behar bezala justifikatzen badu ezintasun hori, zuzenbidean onargarri den edozein frogabide erabiliz egiaztatu ahal izango du deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituela.

**Hamahirugarrena.—*Karrerako funtzionarioen izendapena***

1. *Organo eskuduna*

Jarraibide gisa harturik Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 3/1987 Foru Arauaren 17.1 artikuluaren 33. apartatua, Foru Aldundiak karrerako funtzionario izendatuko ditu epaimahaiak proposatutako izangaiak.

2. *Izendapenak jakinaraztea eta argitaratzea*

Izendapenak interesdunei jakinaraziko zaizkie eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

**Hamalaugarrena.—*Plazaz jabetzea***

1. *Betekizunak*

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 62.1.c) artikuluan ezartzen den baldintza plazaz jabetzeko egintzan bertan beteko da.

2. *Epea*

Plazaz jabetzeko epea hilabete (1) izango da, izendapena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

3. *Epea luzatzea*

Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuak plazaz jabetzeko epea luzatu ahal izango du, interesdunak hala eskatuta, baina inoiz ere ez adierazitako epearen erdia baino gehiago.

4. *Plazaz ez jabetzea*

Izangai batek plazari uko egiten diola joko da baldin eta, arrazoi justifikaturik gabe, ez badu hura jabetzan hartzen oinarri honen 2. apartatuan adierazitako epearen barruan edo, hala badagokio, emandako luzapenaren barruan. Halakoetan ere, hamaikagarrena oinarrian aipatzen den izendapen-proposamen osagarrira joko da, uko-egite horren ondorioz deialdiko plaza-kopuruan sar daitezkeen izangaien aldeko izendapen-proposamena egiteko, puntuazio-hurrenkeraren arabera.

5. *Plazaz jabetzea eta berehalako eszedentzia eskatzea.*

Baldin eta karrerako funtzionario izendatutako pertsonek lanpostua gordetzeko eskubiderik gabe eszedentzia eskatzen badute plazaz jabetzean, hutsik utzi dituzten plaza eta lanpostua adjudikatuko dira. Ondore horretarako, epaimahai kalifikatzaileak karrerako funtzionarioak izendatzeko egindako proposamen osagarria erabiliko da.

**Hamabosgarrena.—*Lan-poltsa***

Hautaketa-prozesu honetako emaitzekin lan-poltsa bat eratuko da, deialdiko oinarri berezietan ezarritakoaren arabera; foru-agindu bidez onartuko da lan-poltsa, eta funtzionarioen hautaketaren arloan indarrean dauden xedapenen arabera eta kontratazio-zerrendak eta lan-poltsak kudeatzeko irizpideen arabera kudeatuko da (irizpideok Bizkaiko Foru Aldundiaren www.bizkaia.eus web-orrian argitaratuta daude, Enplegu Publikoaren Eskaintza atalean).

**Hamaseigarrena.—*Kexak eta iradokizunak***

Parte-hartzaileek kexak eta iradokizunak aurkez ditzakete, edonoiz, www.bizkaia.eus (Lan Publikoaren Eskaintza) web-orriko «Kexak eta iradokizunak» estekaren bidez; edo Bizkaiko Foru Aldundiaren erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan (Bilbo, Balmase-

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

da, Bermeo, Durango, Gernika-Lumo, Igorre, Markina-Xemein eta Mungia), edo urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarrita dauden tokietan.

Bizkaiko Foru Aldundiaren erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan (Bilbo, Balmaseda, Bermeo, Durango, Gernika-Lumo, Igorre, Markina-Xemein eta Mungia).

Aurkeztutako kexa eta iradokizunak Langileen Aukeraketarako eta Trebakuntzarako Zerbitzuan dagoen kexa eta iradokizunen erregistroan sartuko dira, eta dagokien tratamendua emango zaie.

**Hamazazpigarrena.—*Aplikatu beharreko araudia***

1. Oinarri hauetan xedatuta ez dagoen guztirako, honako arau hauek ezarriko dira: Euskal Enplegu Publikoaren 2022ko abenduaren 1eko 11/2022 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Funtzio Publikoa Eraldatzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, lege horiek garatzeko arautegia eta ezarri beharreko gainerako xedapenak, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Epaimahaien Eskuliburua.

2. Deialdi honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ahaldun nagusi andreari hilabeteko (1) epean, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi (2) hilabeteko epean, txandaren arabera dagokion Administrazioarekiko Auzien Bilboko Epaitegian, baina ezin dira errekurtso biak aldi berean jarri.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

I Eranskina Onarpen eskabidea /
Anexo I. Solicitud de admisión

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

## 1.- *Deialdia* / Convocatoria

*Eskala*/Escala — *Azpieskala, kategoria, mota*/Subescala, categoría, clase

Sarbideak / Sistemas de acceso concurso- oposición

*Txanda* / Turno: ☐ *Askea* / Libre ☐ *Barne sustapena* / Promoción interna

*Sartzeko modalitateak* / Modo de acceso: ☐ *Orokorra* / General ☐ *Desgaitasunen bat duten pertsonentzako* / Reservado a personas con discapacidad

*Hautaprobak egiteko hizkuntza* / Idioma de pruebas selectivas: ☐ *Euskera* ☐ *Gaztelania* / Castellano

## 2.- *Norberaren Datuak* / Datos personales

| *Lehen deitura* / Primer apellido | *Bigarren deitura* / Segundo Apellido | *Izena* / Nombre |
|---|---|---|
| | | |

| NAN-ANZ / DNI-NIE | *Jaioteguna* /Fecha nacimiento | *Sexua* / Sexo: ☐ *Emakumea* / Mujer ☐ *Gizona*/ Hombre ☐ *Beste batzuk*/ Otros |
|---|---|---|
| | | |

| *Helbidea: kalea edo plaza, zk., solairua* / Dirección: calle, plaza, nº, piso | PK / C P | *Herria* / Localidad | *Lurraldea* / Territorio |
|---|---|---|---|
| | | | |

| *Mugikorra*/Móvil | *Posta elektronikoa* / Correo electrónico |
|---|---|
| | |

| ***EGOKITZAPENA/* ADAPTACIÓN** ☐ *Bai* / Si ☐ *Ez* / No | *Eskatzen den* ***egokitzapena* / Adaptación** que se solicita: *Arrazoia* / Motivo: ☐ *Desgaitasuna* / Discapacidad ☐ *Beste bat* / Otro: |
|---|---|

## 3.- *Honako hauek dauzkat*/Manifiesto que dispongo:

*Betekizun orokorrak* /Requisitos generales:

- ☐ *Oinarri berezietan eskatzen den titulazioa/* Titulación exigida en las bases específicas
- ☐ *Eskatutako IT Txartelak*/ IT Txartela exigidas
- ☐ B *Gidabaimena*/ Carnet de conducir B
- ☐
- ☐

*Lanpostu batzuetarako berariazko betekizunak / Requisitos específicos para algunos puestos:*

- ☐
- ☐
- ☐

*Lanpostu batzuetarako berariazko betekizunak* / Perfil lingüístico:

*Hizkuntz-eskakizun hauek ditut egiaztatuta/*
Tengo acreditados los siguientes perfiles lingüísticos:

- ☐ *Egiaztatuko hizkuntza-eskakizunik gabe*/ Sin perfil acreditado
- ☐ *Hizkuntz-eskakizuna*/ Perfil lingüístico A2B1
- ☐ *Hizkuntz-eskakizuna*/ Perfil lingüístico B1B1
- ☐ *Hizkuntz-eskakizuna*/ Perfil lingüístico B1B2
- ☐ *Hizkuntz-eskakizuna*/ Perfil lingüístico B2B2
- ☐ *Hizkuntz-eskakizuna*/ Perfil lingüístico B2C1
- ☐ *Hizkuntz-eskakizuna* Perfil lingüístico C1C1
- ☐ *Hizkuntz-eskakizuna*/ Perfil lingüístico C2C1
- ☐ *Hizkuntz-eskakizuna*/ Perfil lingüístico C2C2

☐ *Deialdiko lanpostuei dagozkien hizkuntza-eskakizunen euskara-azterketak egin nahi ditut./*
Deseo realizar los exámenes de euskera de los perfiles lingüísticos correspondientes a las plazas convocadas

☐ *Ez dut hizkuntza-eskakizuna aztertu nahi*/No deseo hacer examen de perfil lingüístico

*Merezimenduak* / Meritos

☐ *BFAk emandako "050 hautaketa prozesuetarako datuen ziurtagiria" alegatzen dut* / Alego el "certificado de datos para procesos selectivos 050" emitido por la DFB

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

*I Eranskina Onarpen eskabidea /*
Anexo I. Solicitud de admisión

### *Aurkeztutako merezimenduaren zerrenda* / Relación de méritos alegados

*Bizkaiko Foru Aldundia ez den beste edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuak/* Servicios prestados en cualquier administración pública diferente a la Diputación Foral de Bizkaia

*Jasotako prestakuntza/emandakoa (050 hautaketa prozesuetarako datuen ziurtagiria" sartu ez den prestakuntza merezimendu gisa alegatu beharko da).* Formación recibida/impartida (La formación no incluida en el "Certificado de datos para procesos selectivos (050)" deberá alegarse como mérito).

| |
|---|
| 1) |
| 2) |
| 3) |
| 4) |
| 5) |
| 6) |
| 7) |
| 8) |
| 9) |
| 10) |
| 11) |
| 12) |
| 13) |
| 14) |
| 15) |
| 16) |
| 17) |
| 18) |
| 19) |
| 20) |
| 21) |
| 22) |
| 23) |
| 24) |



eek: BAO-2025a217-(I-1195)

*I Eranskina Onarpen eskabidea /*
Anexo I. Solicitud de admisión

| *Hizkuntzen ezagutza/ Conocimiento de idiomas:* | | |
|---|---|---|
| *Ingelesa*/Ingles | *Frantsesa*/Frances: | Aleman /Alemán: |
| ☐ *Ez dakit*/ No tengo conocimiento | ☐ *Ez dakit*/ No tengo conocimiento | ☐ *Ez dakit*/ No tengo conocimiento |
| ☐ *B1* | ☐ *B1* | ☐ *B1* |
| ☐ *B2* | ☐ *B2* | ☐ *B2* |
| ☐ *C1* | ☐ *C1* | ☐ *C1* |

**4.- *1/2020 Foru Arauak ezarritako tasaren ordainketa /***
**Abono de la tasa establecida por la Norma Foral 1/2020**

*Salbuetsita nago tasa ordaintzera* /Estoy exento/a del pago de la tasa:

- ☐ *%33ko desgaitasuna edo handiago*/ Discapacidad de grado igual o superior al 33%
- ☐ *Familia ugariko kidea naiz*/Soy miembro de familia numerosa
- ☐ *Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dut*/Percibo la Renta de Garantía de Ingresos
- ☐ *Bizitzeko Gutxieneko Errenta jasotzen dut*/Percibo el Ingreso Mínimo Vital
- ☐ *Genero indarkeriaren biktima naiz* /Soy víctima de violencia de género
- ☐ *Guraso bakarreko familia bateko kidea naiz* /Soy integrante de una familia monoparental/monomarental

**5.- *Egiazta daitekeen dokumentazioa*/Documentación verificable**

*Dokumentazioa zure izenean lor dezakegu, beste administrazio batzuei eskatuta. Horretarako, beharrezkoa da berariaz aurka ez egitea edo onartzea (gaitzen gaituen araudiaren arabera). Zure datuak kontsultatzen uzten ez badiguzu, egiaztagiriak erantsi beharko dituzu. Dokumentazioa lortzea ahalbidetzen duen gaikuntza-legeren bat badago, zer datu kontsultatuko ditugun jakinaraziko dizugu.*/Esta documentación la podemos obtener en tu nombre solicitándosela a otras Administraciones. Para ello, necesitamos que no te opongas o consientas expresamente (según normativa habilitante). Si no nos permites que consultemos tus datos tendrás que adjuntar la documentación acreditativa. En el caso de que exista una ley habilitadora que nos permita obtener la documentación te informaremos de que datos vamos a consultar.

*Aurka zaudela adierazten ez baduzu, datu hauek lortuko ditugu (39/2015 APELaren 28.2 artikulua eta 2016/679 DBEOren 6.1 artikulua)* / Salvo que te opongas expresamente vamos a obtener los siguientes datos (art.28.2 de la LPAC 39/2015 y art.6.1 del RGPD 2016/679).

| ***Dokumentua*/Documento** | ***Aurka nago*/Me opongo** | ***Arrazoia*/Motivo** |
|---|---|---|
| ☐ *Titulu ofiziala*/Titulación oficial | | |
| ☐ IT Txartelen ziurtagiria /Certificado de IT Txartelak | | |
| ☐ *Euskara gaitasunaren ziurtagiria*/Certificado de nivel de euskera | | |
| ☐ *Gidabaimena (TZN-Trafiko Zuzendaritza Nagusia)* /Permiso de conducir (DGT-Dirección General de Tráfico) | | |
| ☐ *Desgaitasun-graduaren ziurtagiria* / Certificado del grado de discapacidad | | |
| ☐ *Familia Ugariaren Titulua/txartela* / Título/Tarjeta de Familia Numerosa | | |
| ☐ *Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzea edo, hala badagokio, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren onuradunak izatea*/Certificado de renta de garantía de ingresos o, en su caso, del Ingreso Mínimo Vital | | |



eek: BAO-2025a217-(I-1195)

*I Eranskina Onarpen eskabidea /*
Anexo I. Solicitud de admisión

### 6.- *Aurkeztutako dokumentazioa (egiazta ezina)* / Documentación aportada (no verificable)

| |
|---|
| ☐ *Bizkaiko Foru Aldundia* **ez den** *administrazio publiko batek emandako desgaitasun-maila egiaztatzen duen dokumentua/* Documento acreditativo del grado de discapacidad emitido por una Administración Pública **que no es** la Diputación Foral de Bizkaia. |
| ☐ *Genero-indarkeriaren biktima dela egiaztatzen duen dokumentua* /Documento acreditativo de ser víctima de violencia de género |
| ☐ *Guraso bakarreko familia bateko kidea dela egiaztatzen duen agiria*/ Documento acreditativo de ser integrante de una familia monoparental/monomarental |
| ☐ *Euskal Autonomia Erkidegoan lortu* **ez den** *familia ugariko kidea dela egiaztatzen duen agiria*/Documento acreditativo de ser integrante de una familia numerosa **que no** se haya obtenido en la Comunidad Autónoma del País Vasco |

### 7.- *Erantzukizunpeko adierazpena* / Declaración responsable

*Eskabide honetan aipatzen den hautaketa-prozesuan onartua izatea eskatzen dut, eta ADIERAZTEN DUT* / Solicito mi admisión al proceso selectivo a que se refiere la presente instancia y DECLARO

| |
|---|
| ☐ *Eskabidean jasotako datuak egiazkoak direla.* / Que son ciertos los datos consignados en la instancia. |
| ☐ *Hautaketa-prozesuaren oinarri orokorretan eta berezietan eskatutako betekizunak eta baldintzak betetzen ditudala.* / Que reúno los requisitos y condiciones exigidos en las bases generales y específicas del proceso selectivo |
| ☐ *Alegatu ditudan merezimenduak erantsitako dokumentazioaren bidez egiaztatuta egongo direla.* / Que los méritos alegados se encuentran acreditados con la documentación que se adjuntará. |
| ☐ *Eskabide honetan agertzen diren datu guztiak agiri bidez egiaztatzeko konpromisoa hartzen dut.* / Me comprometo a probar documentalmente todos los datos que figuran en esta solicitud. |

(*tokia* / lugar) (*urtea* / año) (*hilabetea* / mes) (*eguna* / día)

*Sinadura* / Firma

Ahaldun Nagusi andre txit gorena / Excma. Sra. Diputada General

| | |
|---|---|
| *Datu pertsonalen tratamenduari buruzko oinarrizko informazioa: 2016/679 Erregelamendua (EB) eta 3/2018 DPEDBLO.* **TRATAMENDUAREN ARDURADUNA**: *Araubide Juridiko eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia edota hautaketa-prozesuko deialdi bakoitzerako izendatutako kalifikazio-epaimahaiak, organo horiek, hurrenez hurren, bakoitzari esleitutako funtzioak eta eskumenak betez egiten dituzten datu pertsonalen tratamenduen arabera. Kale Nagusia, 25- 48009 Bilbo* **HELBURUA:** *Bizkaiko Foru Aldundiaren lan-eskaintza publikoetatik eratorritako hautaketa-prozesuen deialdiak kudeatzea. Horien barruan sartzen dira datu pertsonalak tratatzea, funtzio publikoko araudiak, deialdietako oinarri orokor eta espezifikoek, sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamenduak eta hautaketa-prozesuetako epaimahaien eskuliburuak esleitutako eskumenak eta eginkizunak behar bezala betetzeko.* **ESKUBIDEAK**: *Interesdunak datuak babesteko araudiak aitortzen dizkion eskubideak erabil ditzake: egoitza elektronikoan: https://www.ebizkaia.eus Erregistro eta Herritarren Arretarako Bulegoan: Diputazio kalea 7, 48008 Bilbao. Foru Aldundiko Herritarrentzako Eskualdeko Bulegoetan sailetako erregistro orokorrak Legean aurreikusitako lekuetan Era berean, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzan ere erreklama dezake..* **INFORMAZIO XEHATUA:** https://www.bizkaia.eus/tje-hautaketaprozesua | Información básica tratamiento de datos personales: Reglamento (UE) 2016/679 y LO 3/2018 PDPGDD. **RESPONSABLE DEL TRATAMIENTO**: Dirección General de Régimen Jurídico y Función Pública y/o, Tribunales calificadores designados para cada convocatoria de proceso selectivo, en función de los tratamientos de datos personales que estos órganos realicen respectivamente en el ejercicio de las funciones y competencias, asignadas a cada uno de ellos. Gran Vía, 25 - 48009 Bilbao. **FINALIDAD**: Gestión de las convocatorias de los procesos selectivos derivadas de las ofertas públicas de empleo de la Diputación Foral de Bizkaia, que incluyen las operaciones de tratamiento de datos personales, para la adecuada realización de las competencias y funciones, asignadas por la normativa de función pública, bases (generales y específicas) de las convocatorias, Reglamento de estructura orgánica departamental y manual de tribunales de procesos selectivos. **DERECHOS**: La persona interesada puede ejercer los derechos que le reconoce la normativa de protección de datos en: sede electrónica de la DFB: https://www.ebizkaia.eus, Oficina de Registro y Atención Ciudadana Laguntza: C/ Diputación, 7- 48008 Bilbao, Oficinas Comarcales de Atención Ciudadana de la Diputación Foral de Bizkaia, Registros Generales Departamentales de DFB previstos en la Ley 39/2015 Igualmente puede reclamar ante la Autoridad Vasca de Protección de Datos **INFORMACIÓN DETALLADA**: https://www.bizkaia.eus/rat-procesoselectivo |



eek: BAO-2025a217-(I-1195)

*I Eranskina Onarpen eskabidea /*
Anexo I. Solicitud de admisión

| *Jarraibide orokorrak* | Instrucciones generales |
|---|---|
| *a) Ale guztietan datuak argi irakur daitezkeela ziurtatu.* | a) Asegúrate de que los datos resultan claramente legibles en todos los ejemplares. |
| *b) Ez ezazu orririk tolestu eta zuzenketa, hobekuntza edo ezabaketarik egin* | b) Evita doblar el papel y realizar correcciones, enmiendas o tachaduras. |
| *c) Inprimakia izenpetu egin behar duzu.* | c) No olvides firmar el impreso. |
| *d) Merezimenduen alegazioak:*<br>*Bizkaiko Foru Aldundian lan egiten dutenek edo lan egin dutenek «050 hautapen-prozesurako datuen ziurtagiria» dutela alegatu beharko dute. Ziurtagiri hori Langileak Kudeatzeko Zerbitzuak emango du, eta merezimenduak egiaztatzeko fasean aurkeztuko dute.*<br>*Nolanahi ere, «050 hautapen-prozesurako datuen ziurtagiria» agertzen ez diren merezimenduak eskabidean alegatu beharko dira.* | d) Alegación de méritos:<br>Aquellas personas que trabajen o hayan trabajado en la Diputación Foral de Bizkaia deberán alegar que disponen del "Certificado de datos para procesos selectivos 050", expedido por el Servicio de Gestión de Personal, el cual aportarán en la fase de acreditación de méritos.<br>En todo caso, deberán alegarse en la instancia los méritos que no figuren en el "Certificado de datos para procesos selectivos 050". |
| *e) Merezimenduak egiaztatzea:*<br>*Oposizio-fasea gainditu duten izangaiek hamar (10) egun balioduneko epea izango dute, dagokion iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskabidean alegatutako merezimenduen egiaztagiriak aurkezteko.* | e) Acreditación de méritos:<br>Las personas aspirantes que hayan superado la fase de oposición dispondrán de un plazo de diez (10) días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación del anuncio correspondiente para presentar la documentación acreditativa de los méritos alegados en la instancia. |
| *Alegatutako zerbitzuak dagokion administrazio publikoak emandako I. eranskineko aurretiazko zerbitzuen ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko dira.* | Los servicios prestados alegados deberán acreditarse mediante la Certificación de Servicios Previos-Anexo I, expedido por la Administración Pública correspondiente. |
| *Bizkaiko Foru Aldundian lan egiten dutenek edo lan egin dutenek Langileak Kudeatzeko Zerbitzuak emandako «050 hautapen-prozesurako datuen ziurtagiria» aurkeztu beharko dute. Ziurtagiri hori izangai bakoitzak bere erregistro pertsonalean eskuratu ahal izango du. Halaber, ziurtagiri horretan agertzen ez diren merezimenduak aurkeztu beharko dira, bestela ezingo baitira baloratu.* | Aquellas personas que trabajen o hayan trabajado en la Diputación Foral de Bizkaia, deberán aportar el "Certificado de datos para procesos selectivos 050" expedido por el Servicio de Gestión de Personal, y que cada persona aspirante podrá obtenerlo en su Registro Personal. Asimismo, deberán aportarse aquellos méritos que no consten en dicho Certificado, ya que, en caso contrario, no podrán ser valorados. |



eek: BAO-2025a217-(I-1195)

**HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDI DEIALDIA, KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAN, TEKNIKARIEN AZPIESKALAN (MOTA: GOI-MAILAKO TEKNIKARIAK; ESPEZIALITATEA: INGURUMENEKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA)**

**1. Deialdiko plazak**

Deialdia egiten da oposizio-lehiaketa bidez betetzeko Ingurumeneko goi-mailako Teknikarien sei (6) plaza (A taldea, A1 titulazio-azpitaldea), honela banaturik:

— Barne-sustapeneko txanda: plaza bat (1), derrigorrezkoa ez den C1C1 hizkuntza-eskakizuna duena.

— Txanda irekia: zazpi (5) plaza; haietako hiruk (3) derrigorrezko C1C1 hizkuntza-eskakizuna dute, eta bik (2) derrigorrezkoa ez den C1C1 hizkuntza-eskakizuna.

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52. 2 eta 78.8 artikuluak aplikatuz, aipatutako plaza-kopurua handitu ahal izango da, enplegu publikoaren eskaintzan agindutako plaza-kopuruaren ehuneko hamar (%10) gehienez ere, baldin eta lanpostu hutsik sortzen bada eskaintza onartu ostetik lehenengo ariketaren datara bitartean. Data hori onartuen eta baztertuen zerrendak onartzeko foru-aginduan jasoko da.

**2. Titulazioa eta jatorria**

Lizentzia, ingeniaritza, arkitektura edo gradu baliokideren bat.

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 91.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, barne-sustapeneko txandan parte hartzen dutenek, dagokion titulazioa edukitzeaz gainera, baldintza hauek bete behar dituzte: karrerako funtzionarioa izan behar dute A2 azpitaldeko plazaren batean edo A1 azpitalde bereko plazaren batean; zerbitzu aktiboan edo zerbitzu berezietan edo artikulu horretan aipatutako eszedentzietan egon behar dute beren jatorrizko kidegoan edo eskalan; bi urteko zerbitzua beteta izan behar dute karrerako funtzionario gisa kidego-eskala horietan, eta sartu nahi duten kidegoan edo eskalan sartzeko ezarritako gainerako baldintzak bete beharko dituzte.

**3. Baldintza espezifikoak**

B mota edo kategoriako gidabaimena.

IT txartelak: Word oinarrizkoa eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010).

Word aurreratuaren eta Excel aurreratuaren IT txartelek Word oinarrizkoarena eta Excel oinarrizkoarena baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Bizkaiko Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

**4. Hautaketa-prozedura**

4.1. *Oposizio-fasea*

Oposizio-faseak hiru (3) ariketa izango ditu: lehenengo biak nahitaezkoak eta baztertzaileak dira; hirugarrena nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazetarako, eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea izango da gainerako plazetarako.

4.1.a) Lehenengo ariketa

Ariketa teorikoa izango da. Lau (4) orduko epean, laurogeita hamar (90) galderako test bat egin beharko da —gehi erreserbako hamar (10) galdera—. Galderak II. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira, eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzen bakoitzak puntu bat (1) balioko du, eta erantzun oker bakoitzeko 0,33 puntu kenduko dira. Ez da punturik kenduko zuriz utzitako erantzunengatik edo bi marka dituztenengatik.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

Lehenago eskatu zitzaizkien ezagutzak berriro egiaztatu behar ez izateko, barne-sustapeneko txandatik datozen izangaiak salbuetsita egongo dira II. eranskinean jasotzen den gai-zerrendaren I. zatiari dagokion probaren zatia egitetik, eta, ondorioz, dagokion denbora proportzionala eta galdera-kopurua izango dute II. eranskinean jasotako gai-zerrendaren II. zatietako edukiei dagokien proba egiteko. Galderak txanda irekian ezarritako berberak izango dira.

4.1.b) Bigarren ariketa

Ariketa honetan bi (2) kasu praktiko daude, idatziz garatzekoak, gehienez ere bost (5) orduko epean. Kasuak gai-zerrendaren II. zatiari buruzkoak izango dira, eta plazaren berezko atazei lotuta egongo dira. Ariketa modu anonimoan zuzenduko da.

Ariketa honetan ez da bereizketarik egingo barne-sustapeneko txandako izangaientzat; beraz, bigarren azterketa praktiko hau berbera izango da bi txandetan.

4.1.c) Hirugarren ariketa

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko C1C1 hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten diren izangaientzat eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea derrigorrezko ez den C1C1 hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten direnentzat; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da dagokion mailan.

C1C1 hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Azken kasu horretan hala izango da, baldin eta parte-hartzaileak Bizkaiko Foru Aldundiak egin behar dituen egiaztapenen aurka ez badaude.

Hala ere, aurkeztu beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta dauden baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte C1C1 hizkuntza-eskakizuna 47/2012 Dekretuaren arabera egiaztatu nahi dutenek (47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena).

4.2. *Lehiaketa-fasea*

Lehiaketan, izangaiek aurkeztu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta balioztatuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) dagozkion puntuak emango zaizkio.

**5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa**

5.1. Oposizio-fasea:

a) Lehenengo ariketari zerotik (0) hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortzen ez dituzten izangaiak baztertuta geratuko dira. Hala ere, gainditutako pertsonen kopurua ez bada 18ra iristen, puntuaziorik handiena lortu duten 18 pertsonek ariketa gainditu dutela ulertuko da eta hurrengo ariketara igaroko dira; horretarako, parte-hartzeko txanda guztiak hartuko dira kontuan. Noten mozketa-puntuan berdinketarik gertatuz gero, mozketa-notaren pareko nota duten izangai guztiek gaindituko dute ariketa hau.

Aurreko deialdian parte hartu zutenek (Bizkaiko ahaldun nagusiaren 227/2019 Foru Dekretua, abenduaren 20koa, administrazio bereziko eskalan, teknikarien azpieskalan, medikua, goi-mailako ingurumen teknikaria, albaitaria, arkitektoa eta ekonomialaria espezialitateetan hautaprobak egiteko deialdia onesten duena) prozesu horretako azterketa teorikoan lortutako kalifikazioa gordeko dute, betiere deialdi honetan txanda berean parte hartzen badute, hau da, txanda

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

irekian edo barne-sustapeneko txandan; bi prozesuetan lortutako kalifikazioen artean, altuena esleituko zaie zuzenean. Hala ere, deialdi honetan izangaiek ez badute lehenengo ariketa teorikoa egiten, aurreko prozesuko azterketa teorikoan lortutako kalifikazioa esleituko zaie zuzenean. Azken kasu horretan, deitzen den hurrengo hautaketa-prozesuan ez dute aukerarik izango kalifikazioa gordetzeko.

Halaber, izangaiek gorde egingo dute hautaketa-prozesu honen lehenengo ariketa teorikoan lortutako kalifikazioa hurrengo deialdirako, oinarrietan hala ezartzen bada, eta, betiere, bi deialdietan txanda berean parte hartzen badute, hau da, txanda irekian edo barne-sustapenekoan. Eskubide hori baliatzeko, hautaprobetan parte hartzeko eskabidea aurkeztu beharko dute eta dagokion tasa ordaindu.

b) Bigarren ariketari zero (0) puntutik hogei (20) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio; kasu praktiko bakoitzari, berriz, zero (0) puntutik hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa. Ariketaren azken puntuazioa bi (2) kasu praktikoen kalifikazioen batura izango da.

Ariketa gainditzeko, gutxienez hamar (10) puntu lortu behar dituzte izangaiek, bi kasu praktikoetan lortutako kalifikazioak batuta.

c) Hirugarren ariketari gai edo ezgai kalifikazioa emango zaio, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenentzat.

Hizkuntza-eskakizuna derrigorrezko ez duten lanpostuetarako, eta Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, mailak egiaztatzeko banaketa honen arabera kalifikatuko da.

Hizkuntza-eskakizun simetrikoetarako:

— B1B1 hizkuntza-eskakizuna: 2,62 puntu.

— B2B2 hizkuntza-eskakizuna: 3,75 puntu.

— C1C1 hizkuntza-eskakizuna: 7,50 puntu.

Hizkuntza-eskakizun asimetrikoetarako:

— A2B1 hizkuntza-eskakizuna: 1,87 puntu.

— B1B2 hizkuntza-eskakizuna: 2,62 puntu.

— B2C1 hizkuntza-eskakizuna: 4,50 puntu.

Ezingo da eskuratu lortu nahi den lanpostuarena baino altuagoa den hizkuntza-eskakizunaren puntuaziorik.

5.2. Merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.3. Izangaien kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

## 6. Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honetatik, lan-poltsa sortuko da lehenengo ariketa gainditzen dutenekin. Pertsonak lehentasun-mailen arabera ordenatuko dira, gainditu duten ariketa kopurua kontuan hartuta.

Lehentasun-maila bakoitzeko aurrentasun-hurrenkera finkatzeko, hautaketa-prozesuan lortutako guztizko puntuazioa hartuko da kontuan. Ariketa guztiak gainditu ezean, I. eranskineko merezimenduen baremoa ezarritakoaren arabera administrazio publikoan lortutako esperientziari dagozkion puntuak baino ez dira gehituko.

Hizkuntza-eskakizunarengatiko puntuak hautaketa-prozesuko seigarren oinarri orokorraren 4. apartatuaren arabera egiaztatu dutenei baino ez zaizkie emango.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

I. ERANSKINA

**MEREZIMENDUEN BAREMOA**

INGURUMENEKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

1. Edozein administrazio publikotan Ingurumeneko goi-mailako teknikarien kategorian (A titulazio-taldea, A1 azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,092 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere hirurogei (60) hilabete, hau da, gehienez 5,5 puntu lor daitezke.

Horretarako, administrazio publikotzat joko dira hemen adierazitako enteak: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluak, eta Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legeak 3.2 artikulua. Orobat, zuzenbide pribatuko ente publikoetan egindako zerbitzuak zenbatuko dira, baina inola ere ez enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio, elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa duten izaera publikoko beste entitate batzuetan egindakoak.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

2. Administrazio publikoetan, administrazio publikoko eskoletan (IVAP, HAIN, HAEI edo beste administrazio-eskola batzuetan), nortasun juridiko publikoa duten zentroetan, unibertsitate publiko zein pribatuetan, elkargo ofizialetan eta unibertsitate-eskoletan, gai-zerrendarekiko harreman zuzena duten prestakuntza-ikastaroetan edo graduondo zein masterreko titulazio akademikoetan emandako nahiz jasotako ordu-kopuruarengatik, 0,0125 puntu hartutako ordu bakoitzeko eta 0,02 puntu emandako ordu bakoitzeko; honenbeste, gehienez: 1,5 puntu.

Gai-zerrendarekin zuzeneko lotura duten prestakuntza-ikastaroak, graduondokoak eta masterrak dira edukia edo gaia zaharkituta ez dutenak, nahiz eta eman/jaso zirenean indarrean zegoen araudia dagoeneko ez egon indarrean, aipatutako dataren ondoren indargabetu zelako.

3. Europar Batasuneko hiru (3) hizkuntza hauetako baten bat jakiteagatik: ingelesa, frantsesa eta alemana. Baina ez da egongo hizkuntza beraren mailak metatzeko aukerarik. Gehienez, 0,5 puntu lor daiteke, banaketa honen arabera:

3.a) Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila edo oinarrizko zikloa edo B1.2 maila ertaina: 0,15 puntu.

3.b) Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila edo B2 maila aurreratua: 0,30 puntu.

3.c) Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuko C-1 maila eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila edo Filologiako lizentzia (goi-mailako unibertsitate-titulua): 0,50 puntu.

Guztira: 7,5 puntu.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

II. ERANSKINA

**GAI-ZERRENDA**

I. ZATIA

1. gaia: 1978ko Espainiako Konstituzioa (I).—Atariko titulua. I. titulua: Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak.

2. gaia: 1978ko Espainiako Konstituzioa (II).—VIII. titulua: Estatuaren lurralde-antolaketa: Printzipio orokorrak, toki-administrazioa eta autonomia-erkidegoak.

3. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (I).—Atariko titulua. I. titulua: Euskal Herriaren eskumenak.

4. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (II).—II. titulua: Euskal Herriaren aginteak.

5. gaia: 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena.—1. kapituluko (Zergak) 1. atala (Arau orokorrak), eta II. kapituluko (Finantza-harremanak) 48. artikulua (Printzipio nagusiak) eta 49. artikulua (Kupoa: kontzeptua).

6. gaia: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia-elkarte osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeen arteko harremanei buruzkoa (I).—Aintzin-idazpurua: Orotariko erabakiak, eta I. idazpurua (Autonomia-elkarte osorako erakundeen eta bertako foruzko ihardutze-erakundeen agintepideak) II. atalburua (Kondaira-lurraldeen agintepideez).

7. gaia: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia-elkarte osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeen arteko harremanei buruzkoa (II).—Dirubidezko eta diruegitamuzko burujabetza. Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusia. Foru-ogasuntzak. Herri-Kontuen Euskal Epaitegia (II. izenpurua eta bigarren erabaki gehigarria)

8. gaia: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena.—I. titulua: Xedapen orokorrak eta Bigarren xedapen gehigarria (Euskal foru-araubidea). 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa — I. titulua: Legearen xedea eta printzipioak.

9. gaia: 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.—Euskal administrazio publikoen zerbitzuko langileak (II. titulua, I. eta II. kapituluak). Enplegatu publikoaren izaera eskuratzea eta galtzea (V. titulua, I. kapitulua). Lanpostuak hornitzea eta mugigarritasuna (VIII. titulua, I., II. eta III. kapituluak).

10. gaia: Euskara Autonomia Estatutuan; Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea. Hizkuntza-normalizazioa Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legean (XIII. titulua). 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.—I. kapitulua: Xedapen orokorrak. II. kapitulua: Hizkuntza-planifikazioa (5. artikulutik 9.era). III. kapitulua: Hizkuntza-eskakizunen sistema (22.etik 25.era, eta 31. eta 32. artikuluak).

11. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko foru-erakundeen hautapen, antolaketa, erregimen eta funtzionamenduari buruzkoa (I).—I. titulua: Batzar Nagusiez. II. tituluko (Bizkaiko gobernu eta administrazioez) I. kapitulua (Foru aldundiaz) eta II. kapitulua (Diputatu nagusiaz).

12. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko foru-erakundeen hautapen, antolaketa, erregimen eta funtzionamenduari buruzkoa (II).—III. titulua: Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren arteko harremanez. IV. titulua: Foru-administrazioaz.

13. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (I).—Atariko titulua: Xedapen orokorrak. I. titulua: Prozeduran interesdun direnak, eta III. titulua: Administrazio-egintzak.

14. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (II).—II. titulua: Administrazio publikoen jarduera.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

15. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (III).—IV. titulua: Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak (I. kapitulutik IV. kapitulura, biak barne).

16. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (IV).—IV. titulua: Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak (V. kapitulutik VII. kapitulura, biak barne).

17. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (V).—V. titulua: Egintzak administrazio-bidetik berrikustea.

18. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (SPKL).—Xedea eta aplikazio-eremua (Atariko titulua, I. kapitulua)

19. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (SPKL)).—Kontratu-motak zedarriztatzea. Erregulazio harmonizatuko kontratuak. Administrazio-kontratuak eta kontratu pribatuak. Kontratua burutzea eta kontratuaren forma. Baliogabetasun-araubidea. Kontratazio-arloko errekurtso berezia. (Atariko tituluko II. kapitulua eta I. tituluko III., IV. eta V. kapituluak).

20. gaia: 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra ezartzen duena.—Dirulaguntzaren kontzeptua (2. artikulua). Dirulaguntzak emateko prozedura (20. artikulua) eta dirulaguntza publikoen justifikazioa (28. artikulua).

21. gaia: 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena.—Atariko titulua: Xedapen orokorrak (xedea eta aplikazio-eremua, eta eskumenak). I. titulua: Bizkaiko Foru Ogasunaren araubidea (printzipio orokorrak, eskubide ekonomikoak eta betebehar ekonomikoak). II. titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrak (printzipio orokorrak).

22. gaia: 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.– Atariko titulua. II. tituluko (Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen eta aginteen jardueran genero-ikuspegia txertatzeko neurriak) II. kapitulua (Estatistikak eta azterlanak) eta IV. kapitulua (Administrazioaren araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko neurriak). 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.—Atarikoa. Atariko titulua. I. titulua: Eskumenak, eginkizunak, antolaketa eta finantzaketa.

23. gaia: 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.—II. titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-sektore publikoan genero-ikuspegia txertatzeko neurriak.

24. gaia: 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, Trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorra lortzekoa eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzekoa.—Atariko titulua: Xedapen orokorrak. I. tituluko (Botere publikoen jarduna) I. kapitulua (Botere publikoek jarduteko irizpide eta ildo orokorrak, eta herritarrek parte hartzeko organoa) eta II. kapituluko (LGTBI pertsonen berdintasun eraginkorra sustatzeko politika publikoak) 11., 12., 13. eta 14. artikuluak.

25. gaia: 16/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzarena.—II. kapitulua: Datuak Babesteko Euskal Agintaritza (3., 6., 8. eta 9. artikuluak). III. kapitulua: Zehapen-araubidea. Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren zuzentzeko ahala (28. artikulua). Bizkaiko Foru Aldundiaren 81/2023 Foru Dekretua, uztailaren 4koa, zeinaren bidez onesten baita Bizkaiko foru-sektore publikoren informazio-segurtasunerako eta datu pertsonalen babeserako politika.—I. kapitulutik III.era.

26. gaia: 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa. Publikotasun aktiboa: Aplikazio-eremua (2. artikulua), kontzeptua eta dimentsioak (5.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

artikulua) eta ez-betetzea (13. artikulua). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea: kontzeptua (18. artikulua), mugak (21. artikulua) eta ez onartzeko arrazoiak (22. artikulua). Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea (27., 28. eta 29. artikulua). Gardentasunaren bermea eta erantzukizunak (34., 35. eta 36. artikuluak).

II. ZATIA

32. gaia: Artxiboak EAEko dokumentu-ondareari buruzko araudian. 7/1990 Legea, Euskal Kultur Ondareari buruzkoa; 232/2000 Dekretua, Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea erregulatzeko arauak onartzen dituena, eta 174/2003 Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioaren artxibo sistemaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoa. 5/2022 Legea, ekainaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko dokumentu-kudeaketa integralaren eta dokumentu-ondarearena. II. titulua. Euskal Autonomia Erkidegoko dokumentu-ondarea.

33. gaia: Artxiboak Estatuko dokumentu-ondareari buruzko araudian. 16/1985 Legea, Espainiako Ondare Historikoari buruzkoa, eta 111/1986, 64/1994, 162/2002, 1401/2007 eta 1708/2011 errege-dekretuak.

34. gaia: Artxiboak eta adimen artifiziala (AA).

35. gaia: Dokumentuetan sartzeko eskubidea artxiboetan. Araudia. 19/2013 Legea; 1708/2011 EDa, eta 16/1985 Legea. Sartzeko eskubideari jarritako mugak: datu pertsonalen sarbidearen eta babesaren arloko araudia; sekretu ofizialak; pertsonen intimitatea eta ohorea; jabetza intelektuala, eta bestelako mugak eta xedapen arauemaileak. Gardentasun aktiboa: informazio publikoa eskura jartzea.

36. gaia: Artxibozaina: lanbidea. Prestakuntza. Kode deontologikoa. Artxiboko langileak.

37. gaia: Espainiako Artxiboen Sistema: osaera, egitura eta eginkizunak. Lankidetza Artxibistikoko Kontseilua: osaera, egitura eta eginkizunak. Dokumentu-ondarea osatzen duten ondasunen artxiboen zentsu-gida.

38. gaia: Administrazio Zentralaren artxiboak. Ministerioen artxiboak. Administrazioaren Artxibo Nagusia.

39. gaia: Estatuaren titulartasuneko artxiboak, Kultura eta Kirol Ministerioak kudeatuak: Aragoiko Koroaren Artxiboa, Valladolideko Errege Kantzelaritzaren Artxiboa, Simancaseko Artxibo Orokorra, Indietako Artxibo Orokorra, Artxibo Historiko Nazionala, Administrazioaren Artxibo Nagusia, Nobleziaren Artxibo Historikoa, Gizarte-mugimenduen Artxibo Historikoa eta Oroimen Historikoaren Agiri-zentroa. Estatuaren titulartasuneko artxiboak, autonomia-erkidegoek kudeatuak: Euskal Autonomia Erkidegoko probintziako artxibo historikoak.

40. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoaren artxibo-sistema.

41. gaia: Udalen artxiboak. Aldundien artxiboak.

42. gaia: Norberaren eta familiaren artxiboak.

43. gaia: Elizaren artxiboak.

44. gaia: Notarioen artxiboak.

45. gaia: Enpresa-artxiboak.

46. gaia: Artxiboak Bizkaiko Lurralde Historikoan.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

47. gaia: Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa.

48. gaia: Artxibistikaren historia.

49. gaia: Artxibistika: kontzeptua eta banaketak. Artxibistika zientzia gisa. Diferentziak, dokumentazioaren alorreko beste zientzia batzuekin alderatuta.

50. gaia: Artxiboetako diplomatika: agirien bidalketa, forma, tradizioa eta baliozkotzea.

51. gaia: Idazteko sistemak: Behe Erdi Aroa eta Aro Modernoa.

52. gaia: Artxiboa: kontzeptua, eginkizunak eta etapak.

53. gaia: Agiriaren kontzeptua eta definizioa. Artxiboko agiriaren definizioa, ezaugarriak eta balioak. Agirien adinen teoria: agirien bizi-zikloa, eta agirien continuuma edo irautea.

54. gaia: Administrazio-espedientea, ikuspuntu artxibistikotik.

55. gaia: Bulegoko edo kudeaketako artxiboak.

56. gaia: Artxibo zentralak eta tartekoak.

57. gaia: Artxibo historikoak.

58. gaia: Artxibistikaren printzipioak: agirien jatorriaren printzipioa, eta agirien jatorrizko ordena edo ordena «naturala»rekiko begirunearena.

## III. ZATIA

## ARTXIBOEN KUDEAKETA

59. gaia: Agiriak artxiboetan sartzea. Ohiko sarrerak eta ezohiko sarrerak.

60. gaia: Identifikazioa: definizioa. Organo ekoizleen identifikazioa, eskumenak eta eginkizunak, agiri-motak eta -serieak.

61. gaia: Argazkien funtsak artxiboetan. Argazki-euskarri, -teknika eta -prozedura tradizionalak. Argazki-euskarrien kontserbazioa eta instalazioa.

62. gaia: Funts musikalak artxiboetan: antolaketa.

63. gaia: Artxibistikaren zientzia laguntzaileak: paleografia, diplomatika, kronologia, historia, zuzenbidea, informazioaren teknologiak eta hizkuntzalaritza.

64. gaia: Dokumentazio-tipologia: Errege-dokumentazioa.

65. gaia: Dokumentazio-tipologia: Notariotzaren arloko dokumentazioa.

66. gaia: Dokumentazio-tipologia: Dokumentazio judiziala.

67. gaia: Dokumentazio-tipologia: Udal-dokumentazioa.

68. gaia: Dokumentazio-tipologia: Elizaren dokumentazioa.

69. gaia: Dokumentazio-tipologia: Ekonomiaren eta enpresaren arloko dokumentazioa.

70. gaia: Administrazio-agirien tipologia.

71. gaia: Sailkapena: irizpideak eta sistemak. Sailkapen-koadroa.

72. gaia: Agirien multzokatzeak. Termino hauen kontzeptua eta definizioa: funts-multzoa, funtsa, funtsaren atala, agiri-seriea, artxibo-unitate konposatua, espedientea, artxibo-unitate sinplea eta agirien bilduma. Agirien multzokatzeen eta deskripzio artxibistikoko ohiko tresnen artean dauden erlazioak, eta deskripziorako eta informazioaren trukerako eta berreskurapenerako nazioarteko arauekiko erlazioak.

73. gaia: Agiriak artxiboetan ordenatzea. Ordenazio-motak. Ordenazioarekin lotutako eragiketak. Agiriak egokitzea eta instalatzea artxiboetan.

74. gaia: Agirien kudeaketa: agiriak kudeatzeko politika-ereduak, eta nazioarteko arauak eta praktika onak aplikatzea.

75. gaia: Deskripzio artxibistikoa. Deskripziorako tresnak: gidak, inbentarioak eta katalogoak.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

76. gaia: Deskripzio artxibistikorako eta informazio artxibistikoaren trukerako nazioarteko arauak: bilakaera eta egungo egoera. Deskripzio artxibistikorako nazioarteko eredu logiko eta kontzeptual nagusiak. ISAD-G: Deskripzio artxibistikorako nazioarteko arau orokorra.

77. gaia: Deskripzio artxibistikoaren normalizazioa. ISAAR (CPF): Erakunde, pertsona eta familiei buruzko artxiboen autoritate-erregistroen gaineko nazioarteko araua. ISDF: Eginkizunen deskripziorako nazioarteko araua.

78. gaia: Arkitektura- eta kartografia-agiriak.

79. gaia: Espurgoa: kontzeptua eta printzipioak. Balorazio-, hautaketa- eta deuseztatze-prozesua.

80. gaia: Kontroleko tresnak.

81. gaia: Informazioa indexatzeko eta berreskuratzeko sistemak. Tipologia.

82. gaia: Tesauroak. Definizioa. Terminoak eta erlazioak. Prestaketa. Aurkezpena.

83. gaia: Artxiboetako zerbitzuak.

84. gaia: Artxiboko agiriak erreproduzitzeko sistema nagusiak. Agirien erreprografia, mikrofilmatzea eta digitalizazioa artxiboetan: helburuak eta programak. Agirien erreprodukzioaren plangintza artxibistikoa. Irudien digitalizazioa. Artxibo digitalen formatuak. Mikroformen segurtasun-artxiboa eta babeste digitala.

85. gaia: Artxiboen zabalkundea eta marketina. Artxiboaren web-orria. Informazio artxibistikoaren zabalkunde-atariak. Espainiako Artxiboen Ataria (PARES) eta Artxiboen Europako Ataria, EUROPEANAren eduki artxibistikoen hornitzaile gisa. Espainiako eta Iberoamerikako Artxiboen Zentsu-gidaren Ataria.

86. gaia: Artxiboen funtzio kulturala.

87. gaia: Artxiboaren eraikina, gordailuak eta bestelako instalazioak: ezaugarri arkitektonikoak. Arloak, zirkulazio-zirkuituak eta altzariak.

88. gaia: Artxiboko agirien kontserbazioa: kontzeptua. Degradazio-faktoreak. Ingurumen- eta segurtasun-neurriak.

89. gaia: Agirien zaharberritzea: kontzeptua. Artxiboetan zaharberritze-proiektuak garatzeko jarraibideak. Papera zaharberritzeko jarduketa nagusiak. Dokumentu-euskarriak: ezaugarriak eta kontserbazioa. Pergaminoa, paper tradizionala, paper industriala, euskarri informatiko berriak.

90. gaia: Teknologia berriak eta beren eragina artxibistikaren arloan. Agiri elektronikoa: kontzeptua eta ezaugarriak.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

## HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA, KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAN, TEKNIKARIEN AZPIESKALAN (MOTA: GOI-MAILAKO TEKNIKARIAK; ESPEZIALITATEA: ALBAITARIA)

### 1. Deialdiko plazak

Albaitariaren plaza bat (1) oposizio-lehiaketa sistemaren bidez betetzeko deialdia egiten da. Plaza A taldekoa A-1 titulazio-azpitaldekoa da eta derrigorrezkoa ez den C1C1 hizkuntza-eskakizuna dauka.

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52. 2 eta 78.8 artikuluak aplikatuz, aipatutako plaza-kopurua handitu ahal izango da, enplegu publikoaren eskaintzan agindutako plaza-kopuruaren ehuneko hamar (%10) gehienez ere, baldin eta lanpostu hutsik sortzen bada eskaintza onartu ostetik lehenengo ariketaren datara bitartean. Data hori onartuen eta baztertuen zerrendak onartzeko foru-aginduan jasoko da.

### 2. Titulazioa

Albaitari titulua, edo lanbide arautu horretan jarduteko gaitzen duena, Europar Batasuneko zuzentarauek ezarritakoaren arabera.

### 3. Baldintza espezifikoak

B mota edo kategoriako gidabaimena.

IT txartelak: Word oinarrizkoa eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010).

Word aurreratuaren eta Excel aurreratuaren IT txartelek Word oinarrizkoarena eta Excel oinarrizkoarena baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Bizkaiko Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

### 4. Hautaketa-prozedura

4.1. *Oposizio-fasea*

Oposizio-faseak hiru (3) ariketa izango ditu; lehenengo biak derrigorrezkoak eta baztertzaileak izango dira, eta hirugarrena borondatezkoa eta ez-baztertzailea izango da.

4.1.a) Lehenengo ariketa

Ariketa teorikoa izango da. Berrehun eta berrogei minutuan (4), laurogeita hamar (90) galderako test bat egin beharko da —gehi erreserbako hamar (10) galdera—. Galderak II. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira, eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzen bakoitzak puntu bat (1) balioko du, eta erantzun oker bakoitzeko 0,33 puntu kenduko dira. Ez da punturik kenduko zuriz utzitako erantzunengatik edo bi marka dituztenengatik.

4.1.b) Bigarren ariketa

Ariketa honetan bi (2) kasu praktiko daude, idatziz garatzekoak, gehienez ere bost (5) orduko epean. Kasuak gai-zerrendaren II. zatiari buruzkoak izango dira, eta plazaren berezko atazei lotuta egongo dira. Modu anonimoan egingo da zuzenketa.

4.1.c) Hirugarren ariketa

Euskara-proba: borondatezkoa eta ez-baztertzailea izango da; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da dagokion mailan.

C1C1 hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Azken kasu horretan hala izango da, baldin eta parte-hartzaileak Bizkaiko Foru Aldundiak egin behar dituen egiaztapenen aurka ez daude.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

Hala ere, aurkeztu beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta dauden baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte C1C1 hizkuntza-eskakizuna 47/2012 Dekretuaren arabera egiaztatu nahi dutenek (47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena).

4.2. *Lehiaketa-fasea*

Lehiaketan, izangaiek aurkeztu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta balioztatuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) dagozkion puntuak emango zaizkio.

**5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa**

5.1. Oposizio-fasea:

a) Lehenengo ariketari zerotik (0) hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortzen ez dituzten izangaiak baztertuta geratuko dira. Hala ere, gainditutako pertsonen kopurua ez bada iristen 3ra, puntuaziorik handiena lortu duten 3 pertsonak hurrengo ariketara igaroko dira; horretarako, parte-hartzeko txanda guztiak hartuko dira kontuan. Noten mozketa-puntuan berdinketa gertatuz gero, mozketa-notaren pareko nota duten izangai guztiek gaindituko dute ariketa hau.

Aurreko deialdian parte hartu zutenek (Bizkaiko ahaldun nagusiaren abenduaren 20ko 227/2019 Foru Dekretua) prozesu horretako azterketa teorikoan lortutako kalifikazioa gordeko dute, betiere deialdi honetan txanda berean parte hartzen badute, hau da, txanda irekian edo barne-sustapeneko txandan; bi prozesuetan lortutako kalifikazioen artean, altuena esleituko zaie zuzenean. Hala ere, deialdi honetan izangaiek ez badute lehenengo ariketa teorikoa egiten, aurreko prozesuko azterketa teorikoan lortutako kalifikazioa esleituko zaie zuzenean. Azken kasu horretan, deitzen den hurrengo hautaketa-prozesuan ez dute aukerarik izango kalifikazioa gordetzeko.

Halaber, izangaiek gorde egingo dute hautaketa-prozesu honen lehenengo ariketa teorikoan lortutako kalifikazioa hurrengo deialdirako, oinarrietan hala ezartzen bada, eta, betiere, bi deialdietan txanda berean parte hartzen badute, hau da, txanda irekian edo barne-sustapenekoan. Eskubide hori baliatzeko, hautaprobetan parte hartzeko eskabidea aurkeztu beharko dute eta dagokion tasa ordaindu.

b) Bigarren ariketari zero (0) puntutik hogei (20) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio; eta kasu praktikoetako bakoitzari, berriz, zero (0) puntutik hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa. Ariketaren azken puntuazioa bi (2) zatien kalifikazioen batura izango da.

Ariketa gainditzeko, gutxienez hamar (10) puntu lortu behar dituzte izangaiek, bi kasu praktikoetan lortutako kalifikazioak batuta.

c) Hirugarren ariketari gai edo ez gai kalifikazioa emango zaio, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenentzat.

Hizkuntza-eskakizuna derrigorrezko ez duten lanpostuetarako, eta Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, mailak egiaztatzeko banaketa honen arabera kalifikatuko da.

Hizkuntza-eskakizun simetrikoetarako:

— B1B1 hizkuntza-eskakizuna: 2,62 puntu.

— B2B2 hizkuntza-eskakizuna: 3,75 puntu.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

— C1C1 hizkuntza-eskakizuna: 7,50 puntu.

Hizkuntza-eskakizun asimetrikoetarako:

— A2B1 hizkuntza-eskakizuna: 1,87 puntu.

— B1B2 hizkuntza-eskakizuna: 2,62 puntu.

— B2C1 hizkuntza-eskakizuna: 4,50 puntu.

Ezingo da eskuratu lortu nahi den lanpostuarena baino altuagoa den hizkuntza-eskakizunaren puntuaziorik.

5.2. Merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.3. Izangaien kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

**6. Lan-poltsa**

Hautaketa-prozesu honetatik, lan-poltsa sortuko da lehenengo ariketa (teorikoa) gainditzen dutenekin. Pertsonak lehentasun-mailen arabera ordenatuko dira, gainditu duten ariketa kopurua kontuan hartuta.

Lehentasun-maila bakoitzeko aurrentasun-hurrenkera finkatzeko, hautaketa-prozesuan lortutako guztizko puntuazioa hartuko da kontuan. Ariketa guztiak gainditu ezean, I. eranskineko merezimenduen baremoa ezarritakoaren arabera administrazio publikoan lortutako esperientziari dagozkion puntuak baino ez dira gehituko.

Hizkuntza-eskakizunarengatiko puntuak hautaketa-prozesuko seigarren oinarri orokorraren 4. apartatuaren arabera egiaztatu dutenei baino ez zaizkie emango.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

I. ERANSKINA

**MEREZIMENDUEN BAREMOA**

ALBAITARIA

1. Edozein administrazio publikotan Albaitarien kategorian (A titulazio-taldea, A1 azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,092 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere hirurogei (60) hilabete, hau da, gehienez 5,5 puntu lor daitezke.

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legeak 3.2 artikuluan jasotakoak. Orobat, zuzenbide pribatuko ente publikoetan egindako zerbitzuak zenbatuko dira, baina inola ere ez enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio, elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa duten izaera publikoko beste entitate batzuetan egindakoak.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

2. Administrazio publikoetan, administrazio publikoko eskoletan (IVAP, HAIN, HAEI edo beste administrazio-eskola batzuetan), nortasun juridiko publikoa duten zentroetan eta unibertsitate publiko zein pribatuetan gai-zerrendarekiko harreman zuzena duten prestakuntza-ikastaroetan edo graduondo zein masterreko titulazio akademikoetan emandako nahiz jasotako ordu-kopuruarengatik, 0,0125 puntu hartutako ordu bakoitzeko eta 0,02 puntu emandako ordu bakoitzeko; honenbeste, gehienez: 1,5 puntu.

Gai-zerrendarekin zuzeneko lotura duten prestakuntza-ikastaroak, graduondokoak eta masterrak dira edukia edo gaia zaharkituta ez dutenak, nahiz eta eman/jaso zirenean indarrean zegoen araudia dagoeneko ez egon indarrean, aipatutako dataren ondoren indargabetu zelako.

3. Europar Batasuneko hiru (3) hizkuntza hauetako baten bat jakiteagatik: ingelesa, frantsesa eta alemana. Baina ez da egongo hizkuntza beraren maila ezberdinak metatzeko aukerarik. Gehienez, 0,5 puntu lor daiteke, banaketa honen arabera:

3.a) Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila edo oinarrizko zikloa edo B1.2 maila ertaina: 0,15 puntu.

3.b) Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila edo B2 maila aurreratua: 0,30 puntu.

3.c) Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuko C-1 maila eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila edo Filologiako lizentzia (goi-mailako unibertsitate-titulua): 0,50 puntu.

Guztira: 7,5 puntu.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

II. ERANSKINA

**GAI-ZERRENDA**

I. ZATIA

1. gaia: 1978ko Espainiako Konstituzioa (I).—Atariko titulua. I. titulua: Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak.

2. gaia: 1978ko Espainiako Konstituzioa (II).—VIII. titulua: Estatuaren lurralde-antolaketa: Printzipio orokorrak, toki-administrazioa eta autonomia-erkidegoak.

3. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (I).—Atariko titulua. I. titulua: Euskal Herriaren eskumenak.

4. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (II).—II. titulua: Euskal Herriaren agin-teak.

5. gaia: 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena.—1. kapituluko (Zergak) 1. atala (Arau orokorrak), eta II. kapituluko (Finantza-harremanak) 48. artikulua (Printzipio nagusiak) eta 49. artikulua (Kupoa: kontzeptua).

6. gaia: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia-elkarte osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeen arteko harremanei buruzkoa (I).—Aintzin-idazpurua: Orotariko erabakiak, eta I. idazpurua (Autonomia-elkarte osorako erakundeen eta bertako foruzko ihardutze-erakundeen agintepideak) II. atalburua (Kondaira-lurraldeen agintepideez).

7. gaia: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia-elkarte osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeen arteko harremanei buruzkoa (II).—Dirubidezko eta diruegitamuzko burujabetza. Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusia. Foru-ogasuntzak. Herri-Kontuen Euskal Epaitegia (II. izenpurua eta bigarren erabaki gehigarria)

8. gaia: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena.—I. titulua: Xedapen orokorrak eta Bigarren xedapen gehigarria (Euskal foru-araubidea). 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa — I. titulua: Legearen xedea eta printzipioak.

9. gaia: 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.—Euskal administrazio publikoen zerbitzuko langileak (II. titulua, I. eta II. kapituluak). Enplegatu publikoaren izaera eskuratzea eta galtzea (V. titulua, I. kapitulua). Lanpostuak hornitzea eta mugigarritasuna (VIII. titulua, I., II. eta III. kapituluak).

10. gaia: Euskara Autonomia Estatutuan; Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea. Hizkuntza-normalizazioa Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legean (XIII. titulua). 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.—I. kapitulua: Xedapen orokorrak. II. kapitulua: Hizkuntza-planifikazioa (5. artikulutik 9.era). III. kapitulua: Hizkuntza-eskakizunen sistema (22.etik 25.era, eta 31. eta 32. artikuluak).

11. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko foru-erakundeen hautapen, antolaketa, erregimen eta funtzionamenduari buruzkoa (I).—I. titulua: Batzar Nagusiez. II. tituluko (Bizkaiko gobernu eta administrazioez) I. kapitulua (Foru aldundiaz) eta II. kapitulua (Diputatu nagusiaz).

12. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko foru-erakundeen hautapen, antolaketa, erregimen eta funtzionamenduari buruzkoa (II).—III. titulua: Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren arteko harremanez. IV. titulua: Foru-administrazioaz.

13. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (I).—Atariko titulua: Xedapen orokorrak. I. titulua: Prozeduran interesdun direnak, eta III. titulua: Administrazio-egintzak.

14. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (II).—II. titulua: Administrazio publikoen jarduera.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

15. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (III).—IV. titulua: Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak (I. kapitulutik IV. kapitulura, biak barne).

16. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (IV).—IV. titulua: Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak (V. kapitulutik VII. kapitulura, biak barne).

17. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (V).—V. titulua: Egintzak administrazio-bidetik berrikustea.

18. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (SPKL).—Xedea eta aplikazio-eremua (Atariko titulua, I. kapitulua)

19. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (SPKL)).—Kontratu-motak zedarriztatzea. Erregulazio harmonizatuko kontratuak. Administrazio-kontratuak eta kontratu pribatuak. Kontratua burutzea eta kontratuaren forma. Baliogabetasun-araubidea. Kontratazio-arloko errekurtso berezia. (Atariko tituluko II. kapitulua eta I. tituluko III., IV. eta V. kapituluak).

20. gaia: 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra ezartzen duena.—Dirulaguntzaren kontzeptua (2. artikulua). Dirulaguntzak emateko prozedura (20. artikulua) eta dirulaguntza publikoen justifikazioa (28. artikulua).

21. gaia: 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena.—Atariko titulua: Xedapen orokorrak (xedea eta aplikazio-eremua, eta eskumenak). I. titulua: Bizkaiko Foru Ogasunaren araubidea (printzipio orokorrak, eskubide ekonomikoak eta betebehar ekonomikoak). II. titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrak (printzipio orokorrak).

22. gaia: 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.– Atariko titulua. II. tituluko (Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen eta aginteen jardueran genero-ikuspegia txertatzeko neurriak) II. kapitulua (Estatistikak eta azterlanak) eta IV. kapitulua (Administrazioaren araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko neurriak). 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.—Atarikoa. Atariko titulua. I. titulua: Eskumenak, eginkizunak, antolaketa eta finantzaketa.

23. gaia: 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.—II. titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-sektore publikoan genero-ikuspegia txertatzeko neurriak.

24. gaia: 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, Trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorra lortzekoa eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzekoa.—Atariko titulua: Xedapen orokorrak. I. tituluko (Botere publikoen jarduna) I. kapitulua (Botere publikoek jarduteko irizpide eta ildo orokorrak, eta herritarrek parte hartzeko organoa) eta II. kapituluko (LGTBI pertsonen berdintasun eraginkorra sustatzeko politika publikoak) 11., 12., 13. eta 14. artikuluak.

25. gaia: 16/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzarena.—II. kapitulua: Datuak Babesteko Euskal Agintaritza (3., 6., 8. eta 9. artikuluak). III. kapitulua: Zehapen-araubidea. Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren zuzentzeko ahala (28. artikulua). Bizkaiko Foru Aldundiaren 81/2023 Foru Dekretua, uztailaren 4koa, zeinaren bidez onesten baita Bizkaiko foru-sektore publikoren informazio-segurtasunerako eta datu pertsonalen babeserako politika.—I. kapitulutik III.era.

26. gaia: 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa. Publikotasun aktiboa: Aplikazio-eremua (2. artikulua), kontzeptua eta dimentsioak (5.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

artikulua) eta ez-betetzea (13. artikulua). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea: kontzeptua (18. artikulua), mugak (21. artikulua) eta ez onartzeko arrazoiak (22. artikulua). Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea (27., 28. eta 29. artikulua). Gardentasunaren bermea eta erantzukizunak (34., 35. eta 36. artikuluak).

II. ZATIA

27. gaia: Abeltzaintzaren arloko eskumenak. EAEren eskumenak eta nola banatzen diren eskumenok Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien artean. Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailaren egitura abeltzaintzaren arloan.

28. gaia: Abeltzaintzako elkartegintza Bizkaian. Abeltzainen elkarteen euskal federazioak.

29. gaia: EAEko zaldi-ekoizpenak: Egitura, lurralde-banaketa, garrantzi ekonomikoa, egungo egoera eta etorkizuna. Zaldiaren sektorea antolatzeko arauak.

30. gaia: EAEko txerri-ekoizpenak. Egitura, lurralde-banaketa, garrantzi ekonomikoa, egungo egoera eta etorkizuna. Txerriaren sektorea antolatzeko arauak.

31. gaia: EAEko erle-ekoizpenak. Egitura, lurralde-banaketa, garrantzi ekonomikoa, egungo egoera eta etorkizuna. Erlezaintzaren sektorea antolatzeko arauak.

32. gaia: EAEko untxi- eta hegazti-ekoizpenak. Egitura, lurralde-banaketa, garrantzi ekonomikoa, egungo egoera eta etorkizuna. Untxiaren eta hegaztien sektorea antolatzeko arauak.

33. gaia: Zooteknika: EBn arraza garbiak hazteko, salerosteko eta sartzeko baldintza zooteknikoak eta genealogikoak. Arraza garbietako animalien hazleen sozietateak aitortzea eta hazkuntza-programen onarpena.

34. gaia: Hazitarako animalien balorazio genetikoak: Metodologia. Pedigri-indizeak eta indize genomikoak. Fidagarritasuna hazitarako animalien hautaketan.

35. gaia: Behi- eta ardi-espezieen material genetikoa bildu, biltegiratu, banatu eta salerostea. Legeria. Oinarrizko baldintzak.

36. gaia: EAEko abere-arraza autoktonoak. Sustatu beharreko arrazak. Galzorian dauden euskal arrazak. Kontserbazio planak.

37. gaia: EAEko esnetarako behi-azienda. Egitura, lurralde-banaketa. Garrantzi ekonomikoa, egungo egoera eta etorkizuna. EAEko hobekuntza-programa.

38. gaia: EAEko okelatarako behi-azienda. Egitura, lurralde-banaketa. Garrantzi ekonomikoa, egungo egoera eta etorkizuna. EAEko hobekuntza-programa.

39. gaia: EAEko esnetarako ardi-azienda. Egitura, lurralde-banaketa. Garrantzi ekonomikoa, egungo egoera eta etorkizuna. EAEko hobekuntza-programa.

40. gaia: EAEko abeltzaintza-ustiategien arau teknikoak, higieneari eta osasunari dagozkionak, ingurumenekoak eta antolamendukoak.

41. gaia: Abeltzaintza-espezieen identifikazioa eta erregistro ofizialak. Identifikazio-sistemak. Legeria.

42. gaia: Konpainia-animaliak: Identifikazioa eta erregistroa. Halako animaliak izateko arauak. Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak. Legeria eta eskumenen banaketa.

43. gaia: Animalien trazabilitate sistema (SITRAN) Mugimenduen erregistroa (REMO) Abereen identifikaziorako banakako erregistroa (RIIA). Abeltzaintza ustiategien erregistroa (REGA). Halako sistemen aplikazioa espezieen arabera eta aplikatu beharreko arautegia.

44. gaia: Animalien eta animalia-jatorriko produktuen mugimendua Europar Batasunetik kanpo eta barruan. TRACES sistema. CEXGAN sistema.

45. gaia: EAEko zezen-ikuskizunak: ikuskizun-motak. Albaitariaren eginkizunak.

46. gaia: Gune zoologikoak: Legeria. Sailkapena, baimena, erregistroa eta kontrola.

47. gaia: 8/2003 Legea, Animalien Osasunari buruzkoa eta 2016/429 (EB) Erregelamendua, animalien gaixotasun transmitigarriei buruzkoa.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

48. gaia: Zaintza epidemiologikoa. Albaitaritzako osasun alertarako sarea (AOAS).

49. gaia: Nahitaez aitortu beharreko gaixotasunak. Komunikazio-arauak.

50. gaia: Immunologia. Oinarrizko kontzeptuak, immunitate motak. Diagnostiko immunologikoa: Sentikortasuna, espezifikotasuna. Diagnostiko-teknikak, oinarriak, aplikazioak eta mugak.

51. gaia: Behien tuberkulosia: Etiologia, patogenia, epidemiologia, diagnostiko-metodoak eta profilaxia. Legeria. Desagerrarazteko programa eta ustiapenen osasun-sailkapena eta lurraldeak.

52. gaia: Behi, ardi, edo ahuntzen bruzelosia. Etiologia, patogenia, epidemiologia, diagnostiko-metodoak eta profilaxia. Legeria. Desagerrarazteko programa eta ustiapenen osasun-sailkapena eta lurraldeak.

53. gaia: Mihi urdina. Etiologia, patogenia, epidemiologia, diagnostiko-metodoak eta profilaxia. Legeria. Kontrolatzeko/desagerraratzeko programa. Ustiapenen osasun-sailkapena eta lurraldeak.

54. gaia: Gaixotasun hemorragiko epizootikoa: Etiologia, patogenia, epidemiologia, diagnostiko-metodoak eta profilaxia. Legeria. Kontrolatzeko/desagerraratzeko programa.

55. gaia: Behien leukosia eta behien peripneumonia kutsakorra. Etiologia, patogenia, epidemiologia, diagnostiko-metodoak eta profilaxia. Legeria. Desagerrarazteko programa eta ustiapenen osasun-sailkapena eta lurraldeak.

56. gaia: Q sukarra. Etiologia, patogenia, epidemiologia, diagnostiko-metodoak eta profilaxia. Legeria. Desagerrarazteko/kontrolatzeko programa eta ustiapenen osasun-sailkapena.

57. gaia: Behien infekziozko errinotrakeitisa (IBR) Etiologia, patogenia, epidemiologia, diagnostiko-metodoak eta profilaxia. Legeria. Desagerrarazteko/kontrolatzeko programa eta ustiapenen osasun-sailkapena.

58. gaia: Behi-aziendarako osasun-programak: Behien beherako birala, neosporosia, paratuberkulosia eta trikhomoniasia kontrolatzeko programak.

59. gaia: Behien entzefalopatia espongiformea eta Scrapie gaixotasuna. Etiologia, patogenia, epidemiologia, diagnostiko-metodoak eta profilaxia. Legeria. Desagerrarazteko/kontrolatzeko programa eta ustiapenen osasun-sailkapena eta estatuak.

60. gaia: Ahoeria. Etiologia, patogenia, epidemiologia, diagnostiko-metodoak eta profilaxia. Legeria.

61. gaia: Errabia. Etiologia, patogenia, epidemiologia, diagnostiko-metodoak eta profilaxia. Legeria.

62. gaia: Txerri-izurri afrikarra eta klasikoa. Etiologia, patogenia, epidemiologia, diagnostiko-metodoak eta profilaxia. Legeria. Desagerrarazteko programa eta ustiapenen osasun-sailkapena.

63. gaia: Aujezsky-ren gaixotasuna Etiologia, patogenia, epidemiologia, diagnostiko-metodoak eta profilaxia. Legeria. Desagerrarazteko programa eta ustiapenen osasun-sailkapena.

64. gaia: Trikinelosia. Etiologia, patogenia, epidemiologia, diagnostiko-metodoak eta profilaxia. Legeria.

65. gaia: Zaldien infelzio-arazo nagusiak. Zaldi-gripea, zaldi-izurria, zaldien arteritis infekziosoa, zaldien anemia infekziosoa. Etiologia, patogenia, epidemiologia, diagnostiko-metodoak eta profilaxia. Gaixotasunen kontrako planak eta kontrol planak.

66. gaia: Erleen gaixotasun nagusiak. Europako baarroosia eta loke europarra; gaixotasun horiei aurre egiteko eta kontrolatzeko metodoak. Erlezaintzako osasun-programak.

67. gaia: Untxien gaixotasun nagusiak: Mixomatosia eta gaixotasun hemorragikoa. Etiologia, patogenia, epidemiologia, diagnostiko-metodoak eta profilaxia. Gaixotasunen kontrako planak eta kontrol planak.

68. gaia: Hegaztien artean salmonella kontrolatzeko programa ofiziala.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

69. gaia: Hegazti gripea zaintzeko programa ofiziala.

70. gaia: Biosegurtasuna abeltzaintza-ustiategietan.

71. gaia: Animaliak babesteko arauak EAEn.

72. gaia: Esperimentazio-animalien eta beste xede zientifiko batzuetarako erabiltzen direnen babesari buruzko arauak.

73. gaia: Animalia bizien garraioa. Ibilgailu eta garraiolarien erregistroa. Animaliak garraioan zehar babesteko arauak. Kontrol-programa.

74. gaia: Animalien garraiorako ibilgailuak garbitzeko eta desinfektatzeko zentroak. Betekizunak. Legeria. Ibilgailuen desinfekzioaren jardunbide egokien gidak.

75. gaia: Animalien babesa eta ongizatea abeltzaintza-ustiategietan. Abeltzaintza-ustiategietan dauden hegaztien gutxieneko babes-neurriak. Kontrol-programa.

76. gaia: Animalien babesa eta ongizatea abeltzaintza-ustiategietan. Abeltzaintza-ustiategietan dauden txerrien gutxieneko babes-neurriak. Kontrol-programa.

77. gaia: Animalien babesa eta ongizatea abeltzaintza-ustiategietan. Abeltzaintza-ustiategietan dauden behien gutxieneko babes-neurriak. Kontrol-programa.

78. gaia: Elikakatea kontrolatzeko plana. Legeria. Aplikazioa EAEn.

79. gaia: Lehen mailako ekoizpenaren higienea. Legeria eta aplikazio-eremua. Kontrol-programa.

80. gaia: 852/2004 Erregelamendua, elikadura-produktuen higieneari buruzkoa. Malgutze-arauak.

81. gaia: Esne gordinaren ekoizpenaren baldintza higieniko-sanitarioak eta trazabilitatea. Q letra. Kontrol-programa.

82. gaia: Gizakiak jatekoak ez diren animalia-azpiproduktuak (SANDACH). Legeria. Eskumenen banaketa. Erregistroak. Kontrol-programak.

83. gaia: Albaitaritzako sendagaia. Preskribatzea, dispentsatzea, albaitariaren botika-kutxa eta ustiategietako botika-kutxa. Albaitaritza-errezeta. PRAN programa (abeltzaintzan antibiotiko gutxiago kontsumitzekoa) eta PRESVET sistema. Kontrol-programa.

84. gaia: Hondakinak ikertzeko plan nazionala (PNIR).

85. gaia: Animalien elikadura. Legeria. Kontrol-plana.

86. gaia: Basoko faunaren osasun zaintzarako plan nazionala. Helburuak. Zaintza-motak. Kontrol, diagnostiko eta profilaxi beharra duten gaixotasunak. Legeria.

87. gaia: Patubes: Espezie basatien tuberkulosiaren aurka jarduteko plana.

88. gaia: Diagnostiko mikrobiologiko eta serologikorako teknikak. Orokortasunak, teknika mikrobiologikoak eta serologikoak. Antibiogramak. Polimerasaren kate-erreakzioa (PCR)

89. gaia: Animalien osasun-laborategiak animalien gaixotasunak desagerrarazteko programa nazionaletan. Laborategi ofizialak izendatzea. Akreditaziorako gidalerroak. Akreditaziorako prozedura

90. gaia: ENAC 17025 arauaren akreditazioaren kontzeptua.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

**HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA, KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAN, TEKNIKARIEN AZPIESKALAN (MOTA: GOI-MAILAKO TEKNIKARIAK; ESPEZIALITATEA: ARKITEKTOA)**

## 1. Deialdiko plazak

Deialdia egiten da oposizio-lehiaketa bidez betetzeko arkitektoen hamabi (12) plaza (A taldea, A1 titulazio-azpitaldea), honela banaturik:

— Barne-sustapeneko txanda: hiru (3) plaza; haietako batek (1) derrigorrezko C1C1 hizkuntza-eskakizuna du, eta bik (2) derrigorrezkoa ez den C1C1 hizkuntza-eskakizuna du. Sartzeko modalitatearen arabera, honela banatuko dira:

- Sarbide orokorreko modalitatea: bi (2) plaza.
- Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako sarbide-modalitatea: plaza bat (1).

— Txanda irekia: bederatzi (9) plaza; haietako bost (5) derrigorrezko C1C1 hizkuntza-eskakizuna dute, eta lauk (4) derrigorrezkoa ez den C1C1 hizkuntza-eskakizuna. Sartzeko modalitatearen arabera, honela banatuko dira:

- Sarbide orokorreko modalitatea: zortzi (8) plaza.
- Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako sarbide-modalitatea: plaza bat (1).

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52. 2 eta 78.8 artikuluak aplikatuz, aipatutako plaza-kopurua handitu ahal izango da, enplegu publikoaren eskaintzan agindutako plaza-kopuruaren ehuneko hamar (%10) gehienez ere, baldin eta lanpostu hutsik sortzen bada eskaintza onartu ostetik lehenengo ariketaren datara bitartean. Data hori onartuen eta baztertuen zerrendak onartzeko foru-aginduan jasoko da.

## 2. Titulazioa eta jatorria

Arkitekto-titulua, edo lanbide arautu horretan jarduteko gaitzen duena, Europar Batasuneko zuzentarauek ezarritakoaren arabera.

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 91.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, barne-sustapeneko txandan parte hartzen dutenek, dagokion titulazioa edukitzeaz gainera, baldintza hauek bete behar dituzte: karrerako funtzionarioa izan behar dute A2 azpitaldeko plazaren batean edo A1 azpitalde bereko plazaren batean; zerbitzu aktiboan edo zerbitzu berezietan edo artikulu horretan aipatutako eszedentzietan egon behar dute beren jatorrizko kidegoan edo eskalan; bi urteko zerbitzua beteta izan behar dute karrerako funtzionario gisa kidego-eskala horietan, eta sartu nahi duten kidegoan edo eskalan sartzeko ezarritako gainerako baldintzak bete beharko dituzte.

## 3. Betekizun espezifikoak

IT txartelak: Word oinarrizkoa eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010).

Word aurreratuaren eta Excel aurreratuaren IT txartelek Word oinarrizkoarena eta Excel oinarrizkoarena baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Bizkaiko Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

## 4. Hautaketa-prozedura

### 4.1. *Oposizio-fasea*

Oposizio-faseak hiru (3) ariketa izango ditu: lehenengo biak nahitaezkoak eta baztertzaileak dira; hirugarrena nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazetarako, eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea izango da gainerako plazetarako.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

4.1.a) Lehenengo ariketa

Ariketa teorikoa izango da. Lau (4) orduko epean, laurogeita hamar (90) galderako test bat egin beharko da —gehi erreserbako hamar (10) galdera—. Galderak II. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira, eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzen bakoitzak puntu bat (1) balioko du, eta erantzun oker bakoitzeko 0,33 puntu kenduko dira. Ez da punturik kenduko zuriz utzitako erantzunengatik edo bi marka dituztenengatik.

Lehenago eskatu zitzaizkien ezagutzak berriro egiaztatu behar ez izateko, barne-sustapeneko txandatik datozen izangaiak salbuetsita egongo dira II. eranskinean jasotzen den gai-zerrendaren I. zatiari dagokion proba-zatia egitetik, eta, ondorioz, dagokien denbora proportzionala eta galdera-kopurua izango dute II. eranskinean jasotako gai-zerrendaren II., III., IV., V. eta VI. zatietako edukiei dagokien proba egiteko. Galderak txanda irekian ezarritako berberak izango dira.

4.1.b) Bigarren ariketa

Plazaren berezko atazekiko lotura duten kasu praktiko bi (2) garatu beharko dira, eta II. eranskinean jasotako gai-zerrendako zati guztietakoak izango dira, salbu I. zatikoak. Ariketa egiteko bost (5) ordu egongo dira gehienez ere. Ariketa modu anonimoan zuzenduko da.

Ariketa honetan ez da bereizketarik egingo barne-sustapeneko txandatik datozen pertsonentzat; beraz, bigarren azterketa praktiko hau berbera izango da bi txandetan.

4.1.c) Hirugarren ariketa

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko C1C1 hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten diren izangaientzat eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea derrigorrezko ez den C1C1 hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten direnentzat; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da dagokion mailan.

C1C1 hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Azken kasu horretan hala izango da, baldin eta parte-hartzaileak Bizkaiko Foru Aldundiak egin behar dituen egiaztapenen aurka ez badaude.

Hala ere, aurkeztu beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta dauden baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte C1C1 hizkuntza-eskakizuna 47/2012 Dekretuaren arabera egiaztatu nahi dutenek (47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena).

4.2. *Lehiaketa-fasea*

Lehiaketan, izangaiek aurkeztu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta balioztatuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) dagozkion puntuak emango zaizkio.

**5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa**

5.1. Oposizio-fasea:

a) Lehenengo ariketari zerotik (0) hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortzen ez dituzten izangaiak baztertuta geratuko dira. Hala ere, gainditutako pertsonen kopurua ez bada 36ra iristen, puntuaziorik handiena lortu duten 36 pertsonek ariketa gainditu dutela ulertuko da eta hurrengo ariketara igaroko dira; horretarako, parte-hartzeko txanda guztiak hartuko dira

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

kontuan. Noten mozketa-puntuan berdinketarik gertatuz gero, mozketa-notaren pareko nota duten izangai guztiek gaindituko dute ariketa hau.

Aurreko deialdian parte hartu zutenek (Bizkaiko Ahaldun nagusiaren 227/2019 Foru Dekretua, abenduaren 20koa, administrazio bereziko eskalan, teknikarien azpieskalan, medikua, goi-mailako ingurumen teknikaria, albaitaria, arkitektoa eta ekonomialaria espezialitateetan hautaprobak egiteko deialdia onesten duena) prozesu horretako azterketa teorikoan lortutako kalifikazioa gordeko dute, betiere deialdi honetan txanda berean parte hartzen badute, hau da, txanda irekian edo barne-sustapeneko txandan; bi prozesuetan lortutako kalifikazioen artean, altuena esleituko zaie zuzenean. Hala ere, deialdi honetan izangaiek ez badute lehenengo ariketa teorikoa egiten, aurreko prozesuko azterketa teorikoan lortutako kalifikazioa esleituko zaie zuzenean. Azken kasu horretan, deitzen den hurrengo hautaketa-prozesuan ez dute aukerarik izango kalifikazioa gordetzeko.

Halaber, izangaiek gorde egingo dute hautaketa-prozesu honen lehenengo ariketa teorikoan lortutako kalifikazioa hurrengo deialdirako, oinarrietan hala ezartzen bada, eta, betiere, bi deialdietan txanda berean parte hartzen badute, hau da, txanda irekian edo barne-sustapenekoan. Eskubide hori baliatzeko, hautaprobetan parte hartzeko eskabidea aurkeztu beharko dute eta dagokion tasa ordaindu.

b) Bigarren ariketari zero (0) puntutik hogei (20) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio; kasu praktiko bakoitzari, berriz, zero (0) puntutik hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa. Ariketaren azken puntuazioa bi (2) kasu praktikoen kalifikazioen batura izango da.

Ariketa gainditzeko, gutxienez hamar (10) puntu lortu behar dituzte izangaiek, bi kasu praktikoetan lortutako kalifikazioak batuta.

c) Hirugarren ariketari gai edo ezgai kalifikazioa emango zaio, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenentzat.

Hizkuntza-eskakizuna derrigorrezko ez duten lanpostuetarako, eta Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, mailak egiaztatzeko banaketa honen arabera kalifikatuko da.

Hizkuntza-eskakizun simetrikoetarako:

— B1B1 hizkuntza-eskakizuna: 2,62 puntu.

— B2B2 hizkuntza-eskakizuna: 3,75 puntu.

— C1C1 hizkuntza-eskakizuna: 7,50 puntu.

Hizkuntza-eskakizun asimetrikoetarako:

— A2B1 hizkuntza-eskakizuna: 1,87 puntu.

— B1B2 hizkuntza-eskakizuna: 2,62 puntu.

— B2C1 hizkuntza-eskakizuna: 4,50 puntu.

Ezingo da eskuratu lortu nahi den lanpostuarena baino altuagoa den hizkuntza-eskakizunaren puntuaziorik.

5.2. Merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.3. Izangaien kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

## 6. Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honetatik, lan-poltsa sortuko da lehenengo ariketa gainditzen dutenekin.

Pertsonak lehentasun-mailen arabera ordenatuko dira, gainditu duten ariketa kopurua kontuan hartuta.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

Lehentasun-maila bakoitzeko aurrentasun-hurrenkera finkatzeko, hautaketa-prozesuan lortutako guztizko puntuazioa hartuko da kontuan. Ariketa guztiak gainditu ezean, I. eranskineko merezimenduen baremoa ezarritakoaren arabera administrazio publikoan lortutako esperientziari dagozkion puntuak baino ez dira gehituko.

Hizkuntza-eskakizunarengatiko puntuak hautaketa-prozesuko seigarren oinarri orokorraren 4. apartatuaren arabera egiaztatu dutenei baino ez zaizkie emango.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

I. ERANSKINA

**MEREZIMENDUEN BAREMOA**

ARKITEKTOA

1. Edozein administrazio publikotan ARKITEKTOEN kategorian (A titulazio-taldea, A1 azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,092 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere hirurogei (60) hilabete, hau da, gehienez 5,5 puntu lor daitezke.

Horretarako, administrazio publikotzat joko dira hemen adierazitako enteak: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluak, eta Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legeak 3.2 artikulua. Orobat, zuzenbide pribatuko ente publikoetan egindako zerbitzuak zenbatuko dira, baina inola ere ez enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio, elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa duten izaera publikoko beste entitate batzuetan egindakoak.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

2. Administrazio publikoetan, administrazio publikoko eskoletan (IVAP, HAIN, HAEI edo beste administrazio-eskola batzuetan), nortasun juridiko publikoa duten zentroetan, unibertsitate publiko zein pribatuetan, elkargo ofizialetan eta unibertsitate-eskoletan, gai-zerrendarekiko harreman zuzena duten prestakuntza-ikastaroetan edo graduondo zein masterreko titulazio akademikoetan emandako nahiz jasotako ordu-kopuruarengatik, 0,0125 puntu hartutako ordu bakoitzeko eta 0,02 puntu emandako ordu bakoitzeko; honenbeste, gehienez: 1,5 puntu.

Gai-zerrendarekin zuzeneko lotura duten prestakuntza-ikastaroak, graduondokoak eta masterrak dira edukia edo gaia zaharkituta ez dutenak, nahiz eta eman/jaso zirenean indarrean zegoen araudia dagoeneko ez egon indarrean, aipatutako dataren ondoren indargabetu zelako.

3. Europar Batasuneko hiru (3) hizkuntza hauetako baten bat jakiteagatik: ingelesa, frantsesa eta alemana. Baina ez da egongo hizkuntza beraren mailak metatzeko aukerarik. Gehienez, 0,5 puntu lor daiteke, banaketa honen arabera:

3.a) Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila edo oinarrizko zikloa edo B1.2 maila ertaina: 0,15 puntu.

3.b) Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila edo B2 maila aurreratua: 0,30 puntu.

3.c) Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuko C-1 maila eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila edo Filologiako lizentzia (goi-mailako unibertsitate-titulua): 0,50 puntu.

Guztira: 7,5 puntu.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

II. ERANSKINA

**GAI-ZERRENDA**

I. ZATIA

1. gaia: 1978ko Espainiako Konstituzioa (I).—Atariko titulua. I. titulua: Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak.

2. gaia: 1978ko Espainiako Konstituzioa (II).—VIII. titulua: Estatuaren lurralde-antolaketa: Printzipio orokorrak, toki-administrazioa eta autonomia-erkidegoak.

3. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (I).—Atariko titulua. I. titulua: Euskal Herriaren eskumenak.

4. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (II).—II. titulua: Euskal Herriaren aginteak.

5. gaia: 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena.—1. kapituluko (Zergak) 1. atala (Arau orokorrak), eta II. kapituluko (Finantza-harremanak) 48. artikulua (Printzipio nagusiak) eta 49. artikulua (Kupoa: kontzeptua).

6. gaia: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia-elkarte osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeen arteko harremanei buruzkoa (I).—Aintzin-idazpurua: Orotariko erabakiak, eta I. idazpurua (Autonomia-elkarte osorako erakundeen eta bertako foruzko ihardutze-erakundeen agintepideak) II. atalburua (Kondaira-lurraldeen agintepideez).

7. gaia: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia-elkarte osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeen arteko harremanei buruzkoa (II).—Dirubidezko eta diruegitamuzko burujabetza. Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusia. Foru-ogasuntzak. Herri-Kontuen Euskal Epaitegia (II. izenpurua eta bigarren erabaki gehigarria)

8. gaia: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena.—I. titulua: Xedapen orokorrak eta Bigarren xedapen gehigarria (Euskal foru-araubidea). 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa — I. titulua: Legearen xedea eta printzipioak.

9. gaia: 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.—Euskal administrazio publikoen zerbitzuko langileak (II. titulua, I. eta II. kapituluak). Enplegatu publikoaren izaera eskuratzea eta galtzea (V. titulua, I. kapitulua). Lanpostuak hornitzea eta mugigarritasuna (VIII. titulua, I., II. eta III. kapituluak).

10. gaia: Euskara Autonomia Estatutuan; Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea. Hizkuntza-normalizazioa Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legean (XIII. titulua). 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.—I. kapitulua: Xedapen orokorrak. II. kapitulua: Hizkuntza-planifikazioa (5. artikulutik 9.era). III. kapitulua: Hizkuntza-eskakizunen sistema (22.etik 25.era, eta 31. eta 32. artikuluak).

11. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko foru-erakundeen hautapen, antolaketa, erregimen eta funtzionamenduari buruzkoa (I).—I. titulua: Batzar Nagusiez. II. tituluko (Bizkaiko gobernu eta administrazioez) I. kapitulua (Foru aldundiaz) eta II. kapitulua (Diputatu nagusiaz).

12. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko foru-erakundeen hautapen, antolaketa, erregimen eta funtzionamenduari buruzkoa (II).—III. titulua: Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren arteko harremanez. IV. titulua: Foru-administrazioaz.

13. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (I).—Atariko titulua: Xedapen orokorrak. I. titulua: Prozeduran interesdun direnak, eta III. titulua: Administrazio-egintzak.

14. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (II).—II. titulua: Administrazio publikoen jarduera.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

15. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (III).—IV. titulua: Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak (I. kapitulutik IV. kapitulura, biak barne).

16. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (IV).—IV. titulua: Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak (V. kapitulutik VII. kapitulura, biak barne).

17. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (V).—V. titulua: Egintzak administrazio-bidetik berrikustea.

18. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (SPKL).—Xedea eta aplikazio-eremua (Atariko titulua, I. kapitulua)

19. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (SPKL)).—Kontratu-motak zedarriztatzea. Erregulazio harmonizatuko kontratuak. Administrazio-kontratuak eta kontratu pribatuak. Kontratua burutzea eta kontratuaren forma. Baliogabetasun-araubidea. Kontratazio-arloko errekurtso berezia. (Atariko tituluko II. kapitulua eta I. tituluko III., IV. eta V. kapituluak).

20. gaia: 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra ezartzen duena.—Dirulaguntzaren kontzeptua (2. artikulua). Dirulaguntzak emateko prozedura (20. artikulua) eta dirulaguntza publikoen justifikazioa (28. artikulua).

21. gaia: 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena.—Atariko titulua: Xedapen orokorrak (xedea eta aplikazio-eremua, eta eskumenak). I. titulua: Bizkaiko Foru Ogasunaren araubidea (printzipio orokorrak, eskubide ekonomikoak eta betebehar ekonomikoak). II. titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrak (printzipio orokorrak).

22. gaia: 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.– Atariko titulua. II. tituluko (Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen eta aginteen jardueran genero-ikuspegia txertatzeko neurriak) II. kapitulua (Estatistikak eta azterlanak) eta IV. kapitulua (Administrazioaren araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko neurriak). 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.—Atarikoa. Atariko titulua. I. titulua: Eskumenak, eginkizunak, antolaketa eta finantzaketa.

23. gaia: 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.—II. titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-sektore publikoan genero-ikuspegia txertatzeko neurriak.

24. gaia: 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, Trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorra lortzekoa eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzekoa.—Atariko titulua: Xedapen orokorrak. I. tituluko (Botere publikoen jarduna) I. kapitulua (Botere publikoek jarduteko irizpide eta ildo orokorrak, eta herritarrek parte hartzeko organoa) eta II. kapituluko (LGTBI pertsonen berdintasun eraginkorra sustatzeko politika publikoak) 11., 12., 13. eta 14. artikuluak.

25. gaia: 16/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzarena.—II. kapitulua: Datuak Babesteko Euskal Agintaritza (3., 6., 8. eta 9. artikuluak). III. kapitulua: Zehapen-araubidea. Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren zuzentzeko ahala (28. artikulua). Bizkaiko Foru Aldundiaren 81/2023 Foru Dekretua, uztailaren 4koa, zeinaren bidez onesten baita Bizkaiko foru-sektore publikoren informazio-segurtasunerako eta datu pertsonalen babeserako politika.—I. kapitulutik III.era.

26. gaia: 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa. Publikotasun aktiboa: Aplikazio-eremua (2. artikulua), kontzeptua eta dimentsioak (5.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

artikulua) eta ez-betetzea (13. artikulua). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea: kontzeptua (18. artikulua), mugak (21. artikulua) eta ez onartzeko arrazoiak (22. artikulua). Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea (27., 28. eta 29. artikulua). Gardentasunaren bermea eta erantzukizunak (34., 35. eta 36. artikuluak).

### II. ZATIA
### LURRALDE-ANTOLAMENDUA ETA ERAGIN SEKTORIALAK

27. gaia: 4/1990 Legea, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoa.—Erabaki nagusiak. Lurralde-antolabideak: lurralde-antolakuntzarako artezpideak; lurraldearekiko zati-egitamuak, lurraldearekiko alor-egitamuak.

28. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (I).—Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea. Gidalerroak.

29. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (II).—Aplikatzeko arauen II. eranskina: Ingurune fisikoaren antolamendua: ingurune fisikoko elementu, prozesu, jardueren kontrol eta antolamenduari buruz nahitaez bete beharreko gidalerroak eta erabilera-matrizea.

30. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (III).—Hiri-habitata: eraldaketa-ardatzak; hiri-berroneratzea; hiri-hazkundearen perimetroa.

31. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (IV).—Hiri-habitata: jarduera ekonomikoetarako lurzorua; bizitegi-kuantifikazioa. Plangintzak bateragarri egitea.

32. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (V).—Paisaia: LAGetako paisaiaren arloko gidalerroak.

33. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (VI).—Aplikazio-arauen I. eranskina: Hirigintza-plangintzarako eta espazioaren erabilerarako eraginkortasun lotesle zuzen edo zeharkakoa.

34. gaia: 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.

35. gaia: 10/2019 Legea, ekainaren 27koa, Establezimendu komertzial handien lurralde-antolamenduari buruzkoa.

36. gaia: 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa.—Ingurumen-ebaluazio estrategikoa: Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren ohiko prozedura eta sinplifikatua.

37. gaia: 22/1988 Legea, uztailaren 28koa, Kostaldeei buruzkoa, eta bera aldatzen duena: 2/2013 Legea, maiatzaren 29koa, itsasbazterraren babes eta erabilera jasangarriari buruzkoa.—Itsas-lehorreko jabari publikoko ondasunak: sailkapena eta definizioak; legezko zortasunak.

38. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala (I).—Antolamendu-kategorietako aplikazio-arauak.

39. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala (II).—Baldintzatzaile gainjarrietako arauak.

40. gaia: Mendiei eta babespeko naturguneen administrazinoari buruzko ekainaren 2ko 3/1994 Foru Araua, eta bera aldatzen duen 3/2007 Foru Araua.—Mendien sailkapena eta erregimena.

41. gaia: 5/2023 Foru Araua, martxoaren 22koa, Bizkaiko Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onartzen duena.—Xedapen orokorrak. LPSko bizikleta-bideen sarearen ezaugarriak.

42. gaia: 5/2021 Foru Araua, urriaren 20koa, Bizkaiko errepideei buruzkoa.—Xedapen orokorrak. Errepideen araubidea: Bizkaiko lurraldeko errepideen plan sektoriala; errepide eta proiektuen plangintza.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

43. gaia: 139/2016 Dekretua, irailaren 27koa, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duena.—Xedapen orokorrak: kontsiderazio orokorrak; Urdaibaiko erreserbako lurzoruaren araubidea; plana gauzatzeko araubide orokorra: plana gauzatzea eta lurzoruaren erabilerak.

### III. zatia
### Eraikuntza

44. gaia: 38/1999 Legea, azaroaren 5ekoa, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzkoa. Xedapen orokorrak. Eraikingintzaren eskakizun teknikoak eta administratiboak. Eraikuntzako eragileak. Erantzukizunak eta bermeak.

45. gaia: 9/2022 Legea, ekainaren 14koa, Arkitekturaren Kalitatearena.

46. gaia: Eraikingintzaren Kode Teknikoa. EKT. Xedapen orokorrak. Baldintza tekniko eta administratiboak. Oinarrizko eskakizunak. I. eta II. eranskinak. Oinarrizko dokumentu bakoitzaren aplikazio-esparrua eta aplikatzeko irizpide orokorrak.

47. gaia: EKT SS OD. Suteetatik babesteko segurtasuna: sarrera; barrutik hedatzea; kanpotik hedatzea; erabiltzaileak ebakuatzea; suteetatik babesteko instalazioak; suhiltzaileen lana; egiturak suaren aurka duen erresistentzia; eranskinak

48. gaia: EKT ESI OD. Erabileraren segurtasuna eta irisgarritasuna: sarrera; erortzeko arriskutik babesteko segurtasuna; kolperen bat hartzeko edo harrapatuta geratzeko arriskutik babesteko segurtasuna; esparruetan itxita geratzeko arriskutik babesteko segurtasuna; argiztapen desegokiak eragindako arriskutik babesteko segurtasuna; jendetza biltzen den egoerek eragindako arriskutik babesteko segurtasuna; itotzeko arriskutik babesteko segurtasuna; mugitzen ari diren ibilgailuek eragindako arriskutik babesteko segurtasuna; tximistek eragindako arriskutik babesteko segurtasuna; irisgarritasuna; eranskinak.

49. gaia: EKT HZ OD. Zarataren kontrako babesa: Sarrera. Alderdi orokorrak. Eskakizunen karakterizazioa eta kuantifikazioa. Diseinua eta neurriak ezartzea. Eraikuntza-produktuak. Eraikuntza. Mantentze- eta kontserbazio-lanak. Eranskinak.

50. gaia: EKT HE OD. Energia aurreztea: sarrera; energia-kontsumoa mugatzea; energia-eskaria kontrolatzeko baldintzak; argiztapen-instalazioen baldintzak; energia berriztagarriaren gutxieneko ekarpena etxeko ur beroaren eskarirako; iturri berriztagarrietatik heldutako gutxieneko energia elektrikoa sortzea; ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturarako gutxieneko zuzkidurak; eranskinak.

51. gaia: EKT HO. Osasungarritasuna. sarrera; hezetasunaren kontrako babesa; barruko airearen kalitatea; ur-hornidura; ur-hustea; radonarekiko esposizioaren kontrako babesa.

52. gaia: EKT HE Egiturazko segurtasuna: erresistentzia eta egonkortasuna. ES-EE Eraikuntzako ekintzak.

53. gaia: 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa. Eraikuntza-obretako segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko baldintzak.

54. gaia: 209/2014 Dekretua, urriaren 28koa, eraikuntzaren kalitate-kontrola arautzen duena.

55. gaia: Semaforoak kontserbatzea eta mantentzea: Eraikinaren liburua. Prebentziozko zaintze- eta mantentze-neurriak.

56. gaia: 80/2022 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzen eta zuzkidura-bizitokien gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituena.—Xedapen orokorrak. Gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak. Lehenengo xedapen iragankorra. I. eranskina. IV. eranskina.

57. gaia: 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa. Xedea eta aplikazio-esparrua. Irisgarritasuna bermatzeko neurriak.

58. gaia: 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

arau teknikoak onartzen dituena. I. eranskina: parametro antropometrikoak; II. eranskina: hiri inguruneko irisgarritasun-baldintza teknikoak; III. eranskina: eraikinetako irisgarritasun-baldintza teknikoak; IV. eranskina: komunikaziorako irisgarritasuna; V. eranskina: eraberritze-, zabalkuntza- edo aldaketa-obrak urbanizazio eta eraikinetan. (2000ko ekainaren 12ko EHAA eta eranskinak).

## IV. ZATIA
## ONDAREA

59. gaia: 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena. I. titulua: xedapen orokorrak. II. titulua: babes-eredua. III. titulua: deklarazio-prozedura. IV. titulua: euskal kultura-ondarearen erregistroak.

60. gaia: 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena. V. titulua: kultura-ondasunen babes-araubide erkidea, eta VI. titulua. kultura-ondasunak babesteko araubide espezifikoa, duten babes mailaren arabera.

61. gaia: 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena. VII. titulua: kultura-ondasunak babesteko araubide espezifikoa, haien tipologiaren arabera. I. kapitulua: kultura-ondasun higiezinak babesteko araubide espezifikoa.

62. gaia: 14/2023 Legea, azaroaren 30ekoa, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzekoa.

63. gaia: 317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa. I. eta II. eranskinak.

64. gaia: Ondasun higiezinak kontserbatzeko eta birgaitzeko lanak oro har (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 199. artikulutik 203. artikulura). Lurzoruaren jabetza-eskubidearen edukia: eginbeharrak eta kargak (Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 15. artikulua). Lurzoru urbanizatuaren jabetza-eskubidearen edukia: eginbeharrak eta kargak (Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 17. artikulua).

65. gaia: 306/1998 Dekretua, azaroaren 10ekoa, kalifikatutako eta zerrendatutako kultura-ondasunen aurri-egoeraren deklarazioari buruzkoa eta berauek eraisteko erabakiaren aurretik eta ondoren egin beharrekoei buruzkoa.

66. gaia: Kultura-ondarea kontserbatu eta zaharberritzeko printzipioei buruzko nazioarteko gutunak eta testuak: Atenasko Gutuna, 1931 eta 1934. Veneziako Gutuna, 1964. Narako 1994ko biltzarra. Eraikitako Herri Ondarearen Gutuna, 1999. Krakoviako Gutuna, 2000. Madrilgo Agiria, 2011. Zurez eraikitako ondarea kontserbatzeko printzipioak. New Delhi, 2017. Davosko Deklarazioa, 2018.

67. gaia: Egurrez eraikitako ondarea hondatu eta degradatzeko arrazoiak eta esku hartzeko irizpide orokorrak.

68. gaia: Ondare-eraikinetan harria hondatu eta degradatzeko arrazoiak, eta harrian esku hartzeko irizpide orokorrak.

69. gaia: Ondare arkitektonikoa baloratzeko irizpideak.

## V. ZATIA
## BALORAZIOAK

70. gaia: Bizkaiko Lurralde Historikoaren Ondareari buruzko azaroaren 16ko 3/2006 Foru Araua: eremua, edukia, sailkapena eta araubide juridikoa (I. tituluko I. kapituluko 1. artikulutik 6.era, biak barne). Tasazioa eta kontabilitateko balorazioa (10. artikulua).

71. gaia: 3/2016 Foru Araua, maiatzaren 18koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinen Foru Katastroari buruzkoa. Atariko titulua. I. titulua: ondasun higiezinak eta katastroko titularrak. II. titulua: katastroaren kudeaketa: higiezinen foru katastroa eratzea eta mantentzea

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

72. gaia: 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena. - Lurzoruaren araubidearen oinarriak, prozedurazko arau erkideak eta arau zibilak - Balioespenak.

73. gaia: 1492/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, Lurzoruaren Legearen Balorazioen Erregelamendua onartzen duena. - Balorazioak egiteko kontzeptuak eta irizpide orokorrak. - Landa-lurzoruaren balorazioa. - Lurzoru urbanizatuaren egoeraren balorazioa.

74. gaia: Desjabetzeak. Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legea. I. titulua (Printzipio orokorrak) eta II. titulua (Prozedura orokorra). Balio justua zehaztea. Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamendua onesten duen 1957ko apirilaren 26ko Dekretua. I. titulua (Printzipio orokorrak); II. titulua, I. kapitulua (Nahitaezko desjabetzearen aurretiko betekizunak); II. titulua, II. kapitulua (Ondasunak okupatzeko edo eskubideak eskuratzeko beharra); II. titulua, III. kapitulua, 1. atala (Alderdien adostasunez zehaztea) eta 2. atala (Balio justua zehazteko espediente arrunta); eta II. titulua, IV. kapitulua, 1. atala (Ordainketa) eta 2. atala (Jabetza hartzea).

75. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 87/2024 Foru Dekretua, uztailaren 24koa, hiri-eta/edo landa-izaerako elementuak dituzten ondasun higiezinak zerga-ondorioetarako balioztatzeko arau teknikoak onartu dituena.—Hiri-izaerako elementuak balioztatzeko arau teknikoak.

## VI. ZATIA

### HIRIGINTZA-PLANGINTZA

76. gaia: 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (I).—Xedapen eta printzipio orokorrak. Hirigintzaren printzipio orokorrak.—Lurzoruaren sailkapena, kalifikazioa eta araubidea: lurzoruaren sailkapena, motak eta kategoriak; lurzoruaren kalifikazioa; Lurzoruaren jabetza-araubidea.

77. gaia: 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (II).—Lurzoruaren sailkapena, kalifikazioa eta araubidea: lurzoruaren araubidea; partzelatzeak eta birpartzelatzeak.

78. gaia: 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (III).—Hirigintzako antolamendua eta plangintza: hirigintzako antolamenduari eta horrek lurraldearen antolamenduarekin daukan harremanari buruzkoa .—Hirigintzako antolamendua eta plangintza: hirigintza antolatzeko planak eta gainerako tresnak; kopuruak eta estandarrak.

79. gaia: 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (IV).—Hirigintzako antolamendua eta plangintza: plangintza eta hirigintzako antolamenduko gainerako tresnak izapidetu eta onartzea.

80. gaia: 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (V).—Lurzoruaren merkatuan administrazioak esku hartzea: lurzoru-ondare publikoak; lurzoruaren merkatuan udalez gaineko erakundeek esku hartzea; lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak.

81. gaia: 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (VI).—Hirigintza-antolamendua egikaritzea: xedapen orokorrak; jarduketa-programen egikaritze-sistema jarduera integratuak garatzeko; sistema orokorren eta tokiko sistemen sareko zuzkidura publikoak egikaritzea; partzelak eta orubeak eraikitzea; beste egikaritze-tresna batzuk.

82. gaia: 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (VII).—Hirigintzako antolamendua bermatzea eta babestea: printzipio orokorrak; hirigintzako lizentziak; hirigintzako ikuskapena.

83. gaia: 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (VIII).—Lehenengo, seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriak. Xedapen iragankorrak.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

84. gaia: 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa.

85. gaia: 45/2025 Dekretua, otsailaren 18koa, hirigintzako estandarrak arautzekoa.

86. gaia: 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena.

87. gaia: 13/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.—Xedapen orokorrak. Zonakatze akustikoa eta zortasun akustikoa. Kalitate akustikoko helburuak eta gehienezko inmisio-balioak. I. eranskina.

88. gaia: 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.—Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoa.

89. gaia: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.—Xedapen orokorrak. Ingurumen-politikaren eskumenak eta koordinazioa Ingurumen-ebaluazioa.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

**HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA, KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAN, TEKNIKARIEN AZPIESKALAN. MOTA: ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA; ESPEZIALITATEA: ARKITEKTO TEKNIKOA.**

### 1. Deialdiko plazak

Deialdia egiten da arkitekto teknikoaren zazpi (7) plaza betetzeko (A titulazio-taldea, A2 azpitaldea), txanda irekian eta oposizio-lehiaketa sistemaren bidez. Horietatik hiruk (3) derrigorrezko C1C1 hizkuntza-eskakizuna dute, eta lauk (4) derrigorrezkoa ez den C1C1 hizkuntza-eskakizuna. Sarbide-modalitatearen arabera, honela banatuko dira:

— Sarbide orokorreko modalitatea: sei (6) plaza.

— Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako sarbide-modalitatea: plaza bat (1).

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52.2 eta 78.8 artikuluak aplikatuz, aipatutako plaza-kopurua handitu egin ahal izango da, enplegu publikoaren eskaintzan konprometitutako plaza-kopuruaren ehuneko hamar (%10) gehienez ere, baldin eta lanpostu hutsik sortu bada eskaintza onartu ostetik lehenengo ariketaren datara bitartean. Data hori onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak onartzeko foru-aginduan jasoko da.

### 2. Titulazioa

Arkitekto Teknikoaren titulua, edo lanbide arautu horretan jarduteko gaitzen duena, Europar Batasuneko zuzentarauek ezarritakoaren arabera.

### 3. Betekizun espezifikoak

IT txartelak: Word oinarrizkoa eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010).

Word aurreratuaren eta Excel aurreratuaren IT txartelek Word oinarrizkoarena eta Excel oinarrizkoarena baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Bizkaiko Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

### 4. Hautaketa-prozedura

Oposizio-lehiaketa izango da izangaiak hautatzeko prozedura.

4.1. *Oposizio-fasea*

Oposizio-faseak hiru (3) ariketa izango ditu: lehenengo biak nahitaezkoak eta baztertzaileak dira; hirugarrena nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazetarako, eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea izango da gainerako plazetarako.

4.1.a) Lehenengo ariketa

Ariketa teorikoa izango da. Laurogei (80) galderako test bat egin beharko da (gehi erreserbako 10 galdera), hiru ordu eta hogeita hamar (3:30) minutuan. Zenbait erantzun eskainiko dira galderetan, baina haietako bat bakarrik izango da zuzena. Galderak II. eranskineko gai-zerrendan jasotako gaiei buruzkoak izango dira. Erantzun zuzen bakoitzeko puntu bat (1) emango da, baina erantzun oker bakoitzeko 0,33 puntu kenduko dira. Ez da punturik kenduko zuriz utzitako erantzunengatik edo bi marka dituztenengatik.

4.1.b) Bigarren ariketa

Bi (2) kasu praktiko garatu beharko dira idatziz; kasuok plazaren eginkizunei lotuak izango dira, eta II. eranskinean jasotako gai-zerrendako zati guztietakoak izango dira, salbu I. zatikoak. Ariketa egiteko lau (4) ordu egongo dira gehienez ere. Ariketa modu anonimoan zuzenduko da.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

4.1.c) Hirugarren ariketa

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko C1C1 hizkuntza-eskakizuna ezarrita daukaten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten diren izangaientzat, eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea derrigorrezkoa ez den C1C1 hizkuntza-eskakizuna ezarrita daukaten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten direnentzat; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da dagokion mailan.

C1C1 hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta daukatenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Azken kasu horretan hala izango da, baldin eta parte-hartzaileak Bizkaiko Foru Aldundiak egin behar dituen egiaztapenen aurka ez badaude.

Hala ere, aurkeztu beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta dauden baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte C1C1 hizkuntza-eskakizuna 47/2012 Dekretuaren arabera egiaztatu nahi dutenek (47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena).

4.2. *Lehiaketa-fasea*

Lehiaketan, izangaiek aurkeztu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta balioztatuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) dagozkion puntuak emango zaizkio.

**5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa**

5.1. Oposizio-fasea:

a) Lehenengo ariketari zerotik (0) hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortzen ez dituzten izangaiak baztertuta geratuko dira.

Hala ere, gainditutako pertsonen kopurua ez bada 21era iristen, puntuaziorik handiena lortu duten 21 pertsonek ariketa gainditu dutela ulertuko da eta hurrengo ariketara igaroko dira; horretarako, parte-hartzeko txanda guztiak hartuko dira kontuan. Noten mozketa-puntuan berdinketarik gertatuz gero, mozketa-notaren pareko nota duten izangai guztiek gaindituko dute ariketa hau.

Aurreko deialdian parte hartu zutenek (Bizkaiko ahaldun nagusiaren urtarrilaren 24ko 11/2017 Foru Dekretua) prozesu horretako azterketa teorikoan lortutako kalifikazioari gordeko dute, betiere deialdi honetan txanda berean parte hartzen badute, hau da, txanda irekian edo barne-sustapenekoan; bi prozesuetan lortutako kalifikazioen artean, altuena esleituko zaie zuzenean. Hala ere, deialdi honetan izangaiek ez badute lehenengo ariketa teorikoa egiten, aurreko prozesuko azterketa teorikoan lortutako kalifikazioa esleituko zaie zuzenean. Azken kasu horretan, deitzen den hurrengo hautaketa-prozesuan ez dute aukerarik izango kalifikazioa gordetzeko.

Halaber, izangaiek gorde egingo dute hautaketa-prozesu honen lehenengo ariketa teorikoan lortutako kalifikazioa hurrengo deialdirako, oinarrietan hala ezartzen bada, eta, betiere, bi deialdietan txanda berean parte hartzen badute, hau da, txanda irekian edo barne-sustapenekoan. Eskubide hori baliatzeko, hautaprobetan parte hartzeko eskabidea aurkeztu beharko dute eta dagokion tasa ordaindu.

b) Bigarren ariketari zero (0) puntutik hogei (20) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio; kasu praktiko bakoitzari, berriz, zero (0) puntutik hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa. Ariketaren azken puntuazioa bi (2) kasu praktikoen kalifikazioen batura izango da.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

Ariketa gainditzeko, gutxienez hamar (10) puntu lortu behar dituzte izangaiek, bi kasu praktikoetan lortutako kalifikazioak batuta.

c) Hirugarren ariketari gai edo ezgai kalifikazioa emango zaio, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenentzat.

Hizkuntza-eskakizuna derrigorrezko ez duten lanpostuetarako, eta Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, mailak egiaztatzeko banaketa honen arabera kalifikatuko da.

Hizkuntza-eskakizun simetrikoetarako:

— B1B1 hizkuntza-eskakizuna: 2,62 puntu.

— B2B2 hizkuntza-eskakizuna: 3,75 puntu.

— C1C1 hizkuntza-eskakizuna: 7,50 puntu.

Hizkuntza-eskakizun asimetrikoetarako:

— A2B1 hizkuntza-eskakizuna: 1,87 puntu.

— B1B2 hizkuntza-eskakizuna: 2,62 puntu.

— B2C1 hizkuntza-eskakizuna: 4,50 puntu.

Ezingo da eskuratu lortu nahi den lanpostuarena baino altuagoa den hizkuntza-eskakizunaren puntuaziorik.

5.2. Merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

**6. Lan-poltsa**

Hautaketa-prozesu honetatik, lan-poltsa sortuko da lehenengo ariketa gainditzen dutenekin.

Pertsonak lehentasun-mailen arabera ordenatuko dira, gainditu duten ariketa kopurua kontuan hartuta.

Lehentasun-maila bakoitzeko aurrentasun-hurrenkera finkatzeko, hautaketa-prozesuan lortutako guztizko puntuazioa hartuko da kontuan. Ariketa guztiak gainditu ezean, I. eranskineko merezimenduen baremoa ezarritakoaren arabera administrazio publikoan lortutako esperientziari dagozkion puntuak baino ez dira gehituko.

Hizkuntza-eskakizunarengatiko puntuak hautaketa-prozesuko seigarren oinarri orokorraren 4. apartatuaren arabera egiaztatu dutenei baino ez zaizkie emango.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

I. ERANSKINA

**ARKITEKTO TEKNIKOA**

1. Edozein administrazio publikotan Arkitekto teknikoaren kategorian (A titulazio-taldea, A2 azpitaldea) egindako zerbitzuengatik, 0,092 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere hirurogei (60) hilabete, hau da, gehienez 5,5 puntu lor daitezke.

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeak 3.2 artikuluan jasotakoak. Orobat, zuzenbide pribatuko ente publikoetan egindako zerbitzuak zenbatuko dira, baina inola ere ez enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio, elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa duten izaera publikoko beste entitate batzuetan egindakoak.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

2. Administrazio publikoetan, administrazio publikoko eskoletan (IVAP, HAIN, HAEI edo beste administrazio-eskola batzuetan), nortasun juridiko publikoa duten zentroetan, unibertsitate publiko zein pribatuetan, elkargo ofizialetan eta unibertsitate-eskoletan, gai-zerrendarekin zuzenean lotutako prestakuntza-ikastaroetan edo berezko graduondo eta masterretan emandako nahiz jasotako ordu-kopuruarengatik: 0,0125 puntu hartutako ordu bakoitzeko eta 0,02 puntu emandako ordu bakoitzeko; gehienez 1,5 puntu.

Gai-zerrendarekin zuzeneko lotura duten prestakuntza-ikastaroak, graduondokoak eta masterrak dira edukia edo gaia zaharkituta ez dutenak, nahiz eta eman/jaso zirenean indarrean zegoen araudia dagoeneko ez egon indarrean, aipatutako dataren ondoren indargabetu zelako.

3. Europar Batasuneko hiru (3) hizkuntza hauetako baten bat jakiteagatik: ingelesa, frantsesa eta alemana. Baina ez da egongo hizkuntza beraren maila ezberdinak metatzeko aukerarik. Gehienez, 0,5 puntu lor daiteke, banaketa honen arabera:

3.a) Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila edo oinarrizko zikloa edo B1.2 maila ertaina: 0,15 puntu.

3.b) Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila edo B2 maila aurreratua: 0,30 puntu.

3.c) Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuko C-1 maila eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila edo Filologiako lizentzia (goi-mailako unibertsitate-titulua): 0,50 puntu.

Guztira: 7,5 puntu.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

II. ERANSKINA

**GAI-ZERRENDA**

**Arkitekto Teknikoa**

I. zatia

1. gaia: 1978ko Espainiako Konstituzioa (I).—Atariko titulua. I. titulua: Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak.

2. gaia: 1978ko Espainiako Konstituzioa (II).—VIII. titulua. Estatuaren lurralde-antolaketa: printzipio orokorrak, toki-administrazioa eta autonomia-erkidegoak.

3. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (I).—Atariko titulua. I. titulua: Euskal Herriaren eskumenak.

4. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (II).—II. titulua: Euskal Herriaren aginteak.

5. gaia: 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena.—1. kapituluko (Zergak) 1. atala (Arau orokorrak), eta II. kapituluko (Finantza-harremanak) 48. artikulua (Printzipio nagusiak) eta 49. artikulua (Kupoa: kontzeptua).

6. gaia: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, autonomia-elkarte osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeen arteko harremanei buruzkoa (I).—Aintzin-idazpurua (Orotariko erabakiak) eta I. idazpuruko (Autonomia-elkarte osorako erakundeen eta bertako foruzko ihardutze-erakundeen agintepideak) II. atalburua (Kondaira-lurraldeen agintepideez).

7. gaia: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, autonomia-elkarte osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeen arteko harremanei buruzkoa (II).—Dirubidezko eta diruegitamuzko burujabetza. Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusia. Foru-ogasuntzak. Herri-Kontuen Euskal Epaitegia (II. titulua eta bigarren xedapen gehigarria).

8. gaia: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena (II).—I. titulua: Xedapen orokorrak eta Bigarren xedapen gehigarria (euskal foru-araubidea). 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.—I. titulua: Legearen xedea eta printzipioak.

9. gaia: 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.—Euskal Administrazio Publikoen zerbitzuko langileak (II. titulua, I. eta II. kapituluak). Enplegatu publikoaren izaera eskuratzea eta galtzea (V. titulua, I. kapitulua). Lanpostuak hornitzea eta mugigarritasuna (VIII. titulua, I., II. eta III. kapituluak).

10. gaia: Euskara Autonomia Estatutuan; Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea. Hizkuntza-normalizazioa Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legean (XIII. titulua). 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.—I. kapitulua: Xedapen orokorrak. II. kapitulua: Hizkuntza-planifikazioa (5.-9. artikuluak). III. kapitulua: Hizkuntza-eskakizunen sistema (22.-25. artikuluak eta 31. eta 32. artikuluak).

11. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko foru-erakundeen hautapen, antolaketa, erregimen eta funtzionamenduari buruzkoa (I).—I. titulua: Batzar Nagusiez. II. tituluko (Bizkaiko gobernu eta administrazioez) I. kapitulua (Foru Aldundiaz) eta II. kapitulua (Diputatu nagusiaz).

12. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko foru-erakundeen hautapen, antolaketa, erregimen eta funtzionamenduari buruzkoa (II).—III. titulua: Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren arteko harremanez. IV. titulua: Foru-administrazioaz.

13. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (I).—III. titulua: Administrazio-egintzak.

eek: BAO-2025a217-(I-1195)

14. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (II).—IV. titulua: Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak

15. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (III).—V. titulua: Egintzak administrazio-bidetik berrikustea.

16. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (SPKL).—Xedea eta aplikazio-eremua (Atariko titulua, I. kapitulua)

17. gaia: 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena.—Atariko titulua: Xedapen orokorrak (xedea eta aplikazio-eremua eta eskumenak). I. titulua: Bizkaiko Foru Ogasunaren araubidea (printzipio orokorrak, eskubide ekonomikoak eta betebehar ekonomikoak).

18. gaia: 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.—Atariko Titulua. II. tituluko (Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen eta aginteen jardueran genero-ikuspegia txertatzeko neurriak) II. kapitulua (Estatistikak eta azterlanak) eta IV. kapitulua (Administrazioaren araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko neurriak). 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.—Atarikoa. Atariko titulua. I. titulua: Eskumenak, eginkizunak, antolaketa eta finantzaketa.

19. gaia: 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.—II. titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-sektore publikoan genero-ikuspegia txertatzeko neurriak.

20. gaia: 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, Trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorra lortzekoa eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzekoa.—Atariko titulua: Xedapen orokorrak. I. tituluko (Botere publikoen jarduna) I. kapitulua (Botere publikoek jarduteko irizpide eta ildo orokorrak, eta herritarrek parte hartzeko organoa) eta II. kapituluko (LGTBI pertsonen berdintasun eraginkorra sustatzeko politika publikoak) 11., 12., 13. eta 14. artikuluak.

21. gaia: 16/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzarena.—II. kapitulua: Datuak Babesteko Euskal Agintaritza (3., 6., 8. eta 9. artikuluak). III. kapitulua: Zehapen-araubidea. Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren zuzentzeko ahala (28. artikulua). Bizkaiko Foru Aldundiaren 81/2023 Foru Dekretua, uztailaren 4koa, zeinaren bidez onesten baita Bizkaiko foru-sektore publikoren informazio-segurtasunerako eta datu pertsonalen babeserako politika.—I. kapitulutik III.era.

